



"Bitartekari lana egiten dugu Melillara asilo eske datozen migratzaileei laguntzeko"

Ainhoa Labaka Goikoetxea durangarra Melillan dago egunotan, hara heltzen diren migratzaileei arreta eta laguntza emateko boluntario lanetan. Orain hiruzpau aste ailegatu zen Melillara, eta irailera arte egongo da han. Ekainaren 24an gertatu zen sarraskia Espainiaren, Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioen ondorio dela dio. • 4



Azken hamaika urteetan, euskararen erabilera %5 igo da Durangaldean

Euskara • Soziolingustika Klusterrak kale neurketen emaitzak kale-ratu ditu. • 2-3



Protesta, lan istripuan hildako lankidearen heriotza salatzen

Zornotza • Aludium enpresako beharginek joan zen asteko lan istripuan hildako lankidearen heriotza salatu dute. Ordu biko lanuztea eta kontzentrazioa egin dituzte lan istripua "prekaritateak" eragin duela salatzen. • 5

Gehigarria

Otxandio eta Zornotzako jaiak



Koordinazio protokoloaren bitartez, indarkeria matxistaren 63 biktima artatu zituzten iaz

Indarkeria matxista • 44 kasu erregistratu ziren Durangon; 11 Abadiñon, 5 Berrizen eta 3 Elorrioren. Gaur egun udalerririk horiek dira, Mankomunitateagaz batera, indarkeria matxistari aurre egiteko jarduerak eta koordinazio mahaia osatzen duten eragileak. • 10

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

"Azken hamaika urteetan euskararen erabilerak %5eko igoera izan du Durangaldean"

Mertxe Mugika AEK-ko kideak eta Soziolingustika Klusterreko presidenteak Durangaldeko euskararen kale erabilerari buruzko datuen berri eman du

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Soziolingustika Klusterrak euskararen erabilerari buruzko kale neurketak egin zituen 2021ean. Euskal Herriko datu orokorrak jakinarazi dituzte, eta baita eskualdekakoak ere. Uda ostean, hainbat herritako datu sako-nagoen berri emango dute. Mertxe Mugika Soziolingustika Klusterreko presidenteak Durangaldeko datuen inguruko gogoeta egin du.

Durangaldeko herrietan zein emaitza jaso dira?

Abadiño, Zornotza, Elorrio, Durango, Mañaria eta Zaldibar dira herriak. Ermua ere Durangaldean sartzen da. Azken hamaika urteetan esan daiteke Durangaldean erabilerak gora egin duela, %5eko igoera, hain zuzen ere. Atentzioa deitu didan beste datu bat da adin talde guztietan egin duela gora, batez ere haur eta gazteen artean. Datu hori poztekoa da. Interpretazio pertsonal legez, ez nuen espero halako daturik.

Beste zein ondorio atera daiteke?

Joera orokorragaz bat eginez, emakumezkoen erabilera gizonazkoen baino altuagoa da, eta, gainera,

bien arteko arrakala handitu egin da azken urteetan. Badago beste datu bat orain aztertzen hasi garena. Aurreko kale neurketetan ez da egin, baina oraingoan bai. Durangaldean, beste hizkuntzen kale erabilera %2,5 da. Adinari dagokionez, nagusi bat eta ume bat

Euskararen erabilerak adin talde guztietan egin du gora, batez ere haur eta gazteen artean

daudenean erabilerak gora egiten du, baina adin berekoen elkarrizketetan behera egiten du. Hala ere, batez beste gora egiten du.

Herri batzuetan, udalak horrela eskatzen duen kasuetan, ikerketa sakonago bat egiten da. Durangaldean zein herritan egin da hori?

Zaldibarren eta Ermuan. Datu horiek ez dira jakinarazi oraindino. Pena da Durangok eta Elorriok azterketa sakonago bat egin ez izana. Orain dela urte batzuk egin zuten

ikerketa. Durango eskualde burua da eta datu horiek jakitea klabea da. Datu garrantzitsuak dira esku-hartzeak erabakitzeke.

Klusterrak zein egiten du kale erabileraren neurketa?

Espazio irekietan berbetan dabil-tzan hiztunen jarduna behatzen da. Neurtzaile batzuk egoten dira, sei orduko behaketak egiten dira. Ikerketa hau 2021eko irailaren erdialdean hasi eta urriaren amaierara arte egin zen. Kaleetan eta plazetan egoten gara, eta jasotzen diren datuak zerbitzari batera bidaltzen dira, mugikor baten bitartez. Mugikorrak diskrezio handiagoz lan egin daiteke. Adin

tartea, emakumea edo gizona den, eta une horretako elkarrizketa zein den bereizten da. Ez du euskar maila aztertzen. Elkarrizketak kontabilizatu egiten dira. Neurtzaileek bikoteka egiten dituzte behaketak. Iaz, horretarako pres-taturiko 340 neurtzaile ibili ziren kale neurketak egiten.

Datu hauek jakinda, zein sentsazio-gaz geratzen zara?

Datuak okertu egingo zirela us-te nuen. Aurkezpenean entzun genuenean batez beste antzera geratu direla, lasaitasuna hartu nuen bere momentuan. Datuak sakonago aztertzea komeni da, baina ez dira txarrak. Bost urtean

antzera geratu gara, baina botila-ren parabola erabili daiteke, eta botila honek itoginak ditu. Itogin horiek estaltzen joan beharko dugu. Horixe da sentitu dudana. Bestalde, euskaldunagoak diren guneeetan beherantzko joera bat dago erabileran. Haur eta gazteen erabilerari buruzko datuak ere az-pimarratuko nituzke. 'Gazteek ez dute euskaraz egiten' esaten dugu askotan, eta egiten dutela ikusi du-gu. Gazte horiek euskaraz egiten jarraitzea da erronka. Horretarako inflexio puntu batean egon gaitzke. Orain, erabilera indartzeko beste zer egin daitekeen pentsatu beharko genuke.




Mertxe Mugika Balanzategi

Soziolingustika Klusterreko presidentea
ELORRIO | 1963

Azken ikerketen arabera, zortzi herritarretik bakarrak egiten du euskaraz kalean Euskal Herrian

Soziolingustika Klusterrak 2021ean egindako euskararen kale erabileraren inguruko datuak kaleratu ditu



Soziolingustika Klusterrak egindako aurkezpenean ateratako argazkia.

IKERKETA • GOIENA

1989tik Euskal Herrian egiten den hizkuntzen erabileraren zortzigarren kale neurketaren emaitzak aurkeztu zituen Soziolingustika Klusterrak maiatzean –erakunde honek bosgarrenez egin du ikerketa–. 7.637 orduz egindako behaketa zuzenaren bitartez, 215.396 elkarrizketa eta 603.497 solaskide behatu ziren lagintzat hartutako 145 udalerrietan. Ohar bidez adierazi dutenez, azken bost urteetan euskararen kale erabilera orokorraren gorabeherarik eza da ondorio nagusia: "Euskal Herriko kaleetan behatutako zortzi pertsonatik batek egiten zuen euskaraz (%12,6). Datu orokor hau 2016ko hizkuntzen


erabileraren kale neurketan behatutakoaren berdina da". 2006an neurtu zen baliorik altuena (%13,7), eta hamar urtean beherantz egin ostean, balioa mantendu egin da azken bosturtekoan. Lehenengo neurketari erreparaturaz gero, 1,8 puntu hazi da erabilera azken 32 urteetan (%10,8).

Datu orokorretik harago, guztiz ezberdina da egoera eremu geografikoei erreparaturaz gero. Nabarmen, Gipuzkoa da euskararik gehien entzuten den eremua (%30,6), azken hamarkadan erabilerak puntu bi behera egin duen arren. Behera egin dute balioek Nafarroan (%5,9) eta Ipar Euskal Herrian (%4,9) ere. Txanponaren beste aldean, orain

bost urte baino euskara gehiago entzuten da Bizkaiko (%9,4) eta Arabako (%4,9) kaleetan. Azken honetan inoiz neurtu den erabilerarik altuena izan da 2021ekoa.

Euskararen kale erabilera zortzi herritarretik bakarrarena dela ikusita, Klusterraren berbetan bistakoa da "hizkuntzarik handienek indar, eragin eta erabilera oso handia" dutela. Gaztelania da nagusi Hego Euskal Herrian; eta frantsesa Ipar Euskal Herrian. Halaber, eta martxoan Uemak argitaratutako txostenaren bidetik, bada aipatzekoa den beste ondorio bat: eremurik euskaldunenetan behera egin du euskararen kale erabilerak. Txosteneko gogoeten atalean jaso dutenez, "udalerrien konbergentzia-joera ikusten da; udalerrri bakoitzeko euskararen ezagutza-maila aldatuz joan ahala, erdiko eremu soziolinguitikoetan geroago eta udalerrri gehiago dago, eta muturreko eremuetan, oster, geroago eta gutxiago".

Euskal Herriko eskualdeak kale erabileraren arabera, 2021



UKT • TOKIKOM

Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren kale neurketa egin zuen iaz, eta ikerlanaren zuzendari Olatz Altunak (Usurbil, 1971) neurketa horren emaitzak aurkeztu zituen Bilbon egindako Soziolinguistika Jardunaldietan, joan den astean.

Ikuspegi orokor batetik, zein ideia nagusi utzi dituzte hizkuntzen kale erabileraren 2021eko datuek?

Datuok utzi duten argazkia bera da lehenengo ideia; Euskal Herriko kaleetan, zortzi lagunetik batek edo herritarren %12,6k egiten zuen euskaraz. Hala ere, momentuko datua baino garrantzitsuagoa da bilakaera, eta ikerketa honek ibilbide luzea duenez, aztertu egin dezakegu hori. Azken bost urteotan, euskararen erabilerak ez du gorabeherarik izan; 30 urte atzera egiten badugu, erabilerak %1,8 egin du gora; 2006tik 2016ra, erabilera orokorrak beheranzko joera izan zuen eta hori eten egin da azken bost urteotan. Beste ideia bat da Euskal Herria oso heterogeneoa dela lurraldeei eta eskualdeei dagokienez, eta oso erabilera maila ezberdinak ditugula. Eskualde batzuetan erabilera oso urria da eta horrek erakusten du euskara oso zaugarria dela oraindik.

“Euskararen kale erabilera jaisten zebilen 2006tik, eta joera hori eten egin da”

Datu horiek zelako erreakzioa eragin dute instituzioetako eta eragileetako kideengan?

Jardunaldietan, bai eragileek bai instituzioek eskertu egin zuten euskararen erabileraren berri ematen duten horrelako ikerketa zientifikoak egitea. Hizkuntzaren kale erabileraren neurketak diagnosi bat egiten du, hizkuntzaren egoera nolakoa den erakusten du, eta hori behar-beharrezkoa da hizkuntza plangintza eta politika sendoak aurrera eramateko. Gainera, edizio honetan interes bere-

Egin den argazkiak balio dezala hausnarketarako eta plangintza eraginkorrak diseinatzeko

zia zegoela esango nuke, 2006tik zetorren beheranzko joera horri eusten zitzaion kezka zegoelako. Alde horretatik, eten egin da beheranzko joera hori, baina, aldi be-

rean, eremu batzuetako errealtate gordina agerian jarri du ikerketak. Dena dela, egin den argazkiak balio dezala hausnarketarako eta plangintza eraginkorrak diseinatzeko.

Egun, Bizkaian dago kalean euskararik gehien entzuten den eskualdea: Lea Artibai. Sorpresa eragin al du emaitza horrek?

Datu horrek dezente oihartzuna izan du eta han eta hemen asko nabarmentzen ari dira, baina, egia esan, guretzat ez da ustekabea izan, Lea Artibai edizio guztietan izan baita kalean euskararik gehien entzuten den eskualdea.

Dena dela, orokorrean Gipuzkoan berba egiten da euskararik gehien kaleetan. Eta eremu euskaldunetan beheraka doa erabilera. Joera orokorra dela baieztatzen dute datuek? Kale erabilerak behera egin du eremurik euskaldunenetan, eta joera hori ez da berria, aurreko edizioan ere gauza bera nabarmendu baikenuen. Horrek ez du esan nahi herri euskaldun guztie-

tan jaitsi denik erabilera, baina, orokorrean, hori gertatu da. Normalean, herri euskaldun horiek herri ertainak eta txikiak dira, eta nabarmendu egiten dugu datu hori, euskaldun dentsitate handiko eremuek interes estrategikoa dutelako hizkuntzaren biziberritze prozesurako. Horietan, euskara

osasuntsu dago eta modu naturalean transmititzen eta garatzen da. Hala ere, azken urteetan gertatu diren aldaketa urbanistiko eta demografikoengatik, eremu horietako euskaldunen proportzioak eta kopuruak behera egin dutela ikusi dugu, eta horrek isla izan du euskararen kale erabileran.



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ainhua Labaka orain hiruzpalau aste ailegatu zen Melillara, eta irailera arte egongo da han. Labakak bertatik bertara bizi du hirira ailegatu gura duten errefuxiatuen egoera.

Boluntario lanetan hasi zara Melillan. Zein da zure betebeharra?

Elkarteak lan ildo desberdinak ditu. Batetik, arlo juridikoari loturikoa dago. Migratzaileen bat asiloa eskatzera badator edo mugara joateko asmoa badu, guk bitartekari lanak egiten ditugu abokatuekin. Beste lan ildo bat osasunari dago-kiona da, eta beste bat, dokumentatzeko. Jendea elkarrizketatzen dugu, iruditan hartzen dugu saltoan gertatzen dena. Aste bitartean ere kalera irteten dugu, kalean bizi diren gazteengana. Konfiantzazko hartu-eman bat lantzen ahalegintzen gara eurekin, behar dutenagaz laguntzeko.

Ekainaren 24an Melillako hesietan gertatu zenak egundoko inpaktua eragin zuen iritzi publikoan. Han egon zinen?

Ekainaren 24 goizean jakin genuen mugako hesian salto egin zutela. Elkarrekin ekintza plan bat aktibatzen du horrelakoetan. Lana banatzen dugu eta saltoa gertatu den eremura joaten gara. Baina, gertaturikoaz berandu enteratu ginenez, ez genuen salto egiten zebilen inor ikusi. Ezta gehiegikeria polizialik ere. Gerora, bai. Bideoak zabaltzen hasi ziren. Egunotan, ohikoa baino presentzia polizial handiagoa dagoela igarri dugu.

Bideoetan migratzaileak lurrean ikusi genituen, hesiaren aurrean pilatuta, Marokoko jendarmeak migratzaileak jipoitzen... Irudi hori ohikoa da?

Martxoaren 2tik 3rako gauean antzerako salto bat egon zen eta *modus operandi* berdina jarraitu zen. Egunotan salto egin duten pertsonak ez dira marokorak. Txadekoak edo Sudanekoak dira, baina Espainiara ailegatzeko Maroko igaro behar dute lehenengo. Eta Marokon arrazakeria instituzional handia dagoenez, migratzaile horiei ez diete aukerarik ematen asiloa eskatzeko, kontsuletxera joateko

“Melillara ailegatzaren diren migratzaileek giza eskubideak bete daitezzen eskatzen dute”

Ainhua Labaka Goikoetxea (Durango, 1999) Melillan dago, hango *Solidary Wheels* elkarteagaz boluntario lanak egiten

arauturiko prozedura hasteko. Ez zaizkie giza eskubideak bermatzen. Beraz, migratzaile horiek Melilla ondoko mendi batera joaten dira, Gurugu mendira, eta han egoten dira, egonleku prekario batzuetan. Gero, antolakuntza minimo bat egitea lortzen dutenean, elkarregaz jaisten dira behera, muga pasatzen ahalegintzen. Eta hor, poliziaren basakeria artean, batzuek muga pasatzea lortzen dute.

Zer gertatzen da hesia pasatzea lortzen ez dutenekin?

Horixe jakin gura dugu guk ere. Ekainaren 24an, 2.000 bat lagun jaitsi ziren menditik, baina 130ek baino ez zuten lortu Melillara sartzea. Erdibidean, ikusi duguna dago: jendea lurrean pilatuta, abalantxa baten biktima, eta poliziaren indarkeria neurribakoa. Gertatu dena argitzea eskatzen dugu. Melillara 130 lagun baino ez badira ailegatu, non daude besteak? Eta zelan daude? Nador (Maroko) herriko ospitalea ere gainezka dago. Baliabide urriak zituen lehen, eta horri jendearen gainkarga batu zaio. Gorpuk identifikatu barik dabilta lurperatzen. Eta besteentzat ez da laguntzarik ailegatzeko.

Zein da Melillako mugara ailegatzaren diren migratzaileen profila?

Orokorrean, profil bi daude. Batetik, marokorak. Melilla hegoaldeko Beni Ansar herritik sartzen dira, igerian. Melillara ailegatu eta kalean geratzen dira, edo CEPI egoitzara doaz. Bestetik, marokorak ez direnak daude. Momentu honetan Txad eta Sudan herrialdeetako jendea da nagusi. Kontuan hartu behar dugu herrialde horiek oso barne gatazka gogorrean bizi direla, eta Txaden kasuan larrialdi klimatikoa ere badutela. Adinari dagokionez, 20tik 23 urtera arteko herriarrak dira nagusi.

Zer esaten dizute migratzaileek?

Haien testigantzei erreparatuta, giza eskubideak errespetatzea eskatzen dutela ikusten dugu. Batzuek



zazpi urteko bidaia egin dute Txadetik Marokora, oinez. Marokoko arrazakeriagaz topo egiten dute. Supermerkatuetan ukatu egin izan diete janaria, beltzak direlako. Eskubideak bermatzea eskatzen dute. Ekainaren 24ko sarraskia gertatu zenean, Espainiako gobernuak mafiei egotzi zien gertatutakoa.

Gure elkarteak ez du interpretazio horregaz bat egiten, eta migratzaileek ere ez. Migratzaileek dioskue inork ere ez diela bitartekaritza lanik egin, inork ere ez dituela batetik bestera eramane. Herrialdeko barne gatazkak behartu ditu euren herrialdetik irtetera. Erabakia modu autonomoan hartu dute. Beraz, ez da mafia kontua. Espainiako gobernuaren irakurketa guztiz interesatua da, migratzaileei autonomia eta boterea kentzeko.

Zeintzuk dira, zuen ustez, egoera honen erantzuleak?

Espainiako gobernuak, Europar Batasuneko migrazio politikak eta Marokoko gobernuagaz hartu-emanak dituztenak. Ez da oso urrutiko joan behar Espainiak eta Europak Marokogaz azken hogeitau urteotan izan dituzten akordioak ikusteko.

Marokori pribilegio politiko eta ekonomikoak eman dizkiote, Espainiako muga kontrolatu dezan. Ardurak oso argiak dira. Martxoan zein ekainaren 24an gertaturiko urteetako hartu-eman hauen ondorio da.



Durangaldeko eragileek Melillako sarraskia salatu zuten joan zen barikuan Durangon.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 8a
20. urtea - 900. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhua Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Aludiumeko beharginek lan istripuan hildako lankidearen heriotza salatu dute

Ordu biko lanuztea eta kontzentrazioa egin dituzte joan zen barikuan hil zen lankidearen lan istripua salatzen



Aludiumeko beharginak, eguaztenean egindako kontzentrazioan.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Aludium enpresako beharginek ordu biko lanuztea eta kontzentrazioa egin dituzte aste honetan, joan zen barikuan hil zen lankidearen lan istripua salatzen. Enpresa batzordeak egin zuen mobilizazioarako deia (CCOO, LAB eta UGT) eta beharginek enpresa atarira irten zuten protesta egitera. Uztailaren 1ean, 34 urteko behargin bat hil zen enpresan, lanean zebilela. Ezbeharra 12:30ean gertatu zen, behargina mantentze-lanak egiten zebilela. LAB sindikatuaren esanetan, langileak azpikontrataturiko enpresa bateko langileak zen, eta makina baten mantentze-lanak egiten zebilela, makina gainera jausi zitzaion.

LABek azaldu duenez, gertaturikoa ez da berria. "Urtero honelako lan istripuak ditugu. Azpikontrataturiko langileak hiltzen dira, lan baldintza kaskarrengaitik. Ez

dago aitzakiarik hiru lanegunetik batean langile bat hiltzeko. Argi dugu lan istripuak ez direla zoriak edo kasualitateak sortuak. Gaur egungo lan harremanen, prekarizazioaren, lan arautegiaren eta azpikontratazioaren emaitza dira", argitu dute.

LABen esanetan, istripua ez da kasualitatea, prekaritatearen ondorio baino

Sindikatuaren berbetan, 44 dira lanpostuetan edo lanak eragindako gaixotasunengaitik hildako beharginak urtea hasi zenetik. "Etekinak eta ekoizpena" lehenesten dituen ereduaren aurrean, "osasuna eta bizitza" lehenetsiko dituen eredu batera jo behar dela iritziz dio LABek.

Frankismoak Amorebietan eta Etxanon eragindako errepresioa dokumentatu dute liburu bitan

Aranzadik eta Aitor Pescador historialariak gerra aurretik eta gerra ostera arteko errepresioa jaso dute udalarentzat

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

22 bonbardaketa, borrokan hildako 378 gudari eta miliziano, emakumeen kartzelan jazartutako 1.413 emakume, Mauthausengo kontzentrazio esparruan amaitu zuten zornotzarrak, herrian eraildako 260 bizilagunetik gora, zerrenda labur bat egitea nahikoa da errepresio fran-

kistak Amorebietan eta Etxanon eragin zuenaz konturatzeko. Aranzadi Zientzia Elkarteko ki-deek eta Aitor Pescador historialariak dokumentazio hori guztia ikertu eta *Amorebieta-Etxano 1931-1945* liburuan jaso dute. Liburuki bi dira. Eurretari batean, testuinguru eta gertakari historikoak aztertuta dituzte. Bestean,

errepresio mota bakoitza jasan duten herritarren edo historiako une hartan Zornotzan zeuden zerrenda ageri da.

Ikerketak "sorpresa" eragin dio Aitor Pescadorri. "Ez nuen aurkituriko guztia topatzea espero", aitortu du. "Errepresio motaren bat jasan duten pertsonengan jarri dut fokua, bai zornotzarrak, bai garai hartan Amorebietan edo Etxanon zeudenak aztertuta", esan du. Aranzadi elkarteko Javi Bucesek nabarmendu du liburu hauekin "egia landu" dela, ikerketarako metodo zientifikoak erabilita. "Egia, justizia eta erreparazioa egiteko, egia behar da lehenengo. Orain, bidea zabalik dago gainerakoetarako", esan du. Andoni Agirrebeitia alkateak adierazi du "herriagaz izandako zorra kitatzea" lortu dela.



Aranzadi elkarteko Javi Buces (ezkerrean) eta Aitor Pescador historialaria (ezkerretik hasita bigarrena) Zornotzako udal agintariekin.



Ainhoa Salterain, EAJren alkategai berria Zornotzan

ZORNOTZA • M.Z.

Ainhoa Salterain Gandarias izango da Zornotzako EAJren alkategaia 2023ko udal hauteskundetarako. Egun, Salterain Gizarte Ekintzako zinegotzia da Zornotzako Udalean. Horrez gainera, 20 urtez Erandioko enplegu, ekono-

miaren sustapen eta tokian tokiko garapenerako Behargintzako koordinatzaile lanetan aritu da. "Hiritarrek batera" eta Zornotzan "lan egiten duten eragileen ondoan lan egitea" du helburu, "gardentasuna sustatuz eta informazio argia eskainiz".

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

leia artibai
ikastetxea

94 616 90 02
info@leartik.eus
www.leartik.eus

Lanbide Heziketa

MATRIKULAZIO EPEA Uztailaren 15etik aurrera

Aforo mugatuak!

Atxondoko herri eskolan sukaldea egiteko lanek "atzerapen handia" izango dutela iragarri du udalak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragarri zuenez, Atxondoko eskolan uda honetan ziren egitekoak sukaldea



Atxondoko herri eskolako argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondoko Udalaren esanetan, eskolan sukaldea egiteko lanek "atzerapen handia" izango dute. "Hezkuntza Sailak obrak laster hasteko asmoa zuen, espazio

berria uda honetan egokitze eta datorren ikasturtetik aurrera martxan egon ahal izateko", esan dute udaletik, baina lanak "hila-bete batzuk atzeratuko dira". Horrek Atxondoko eskoletako

eraikin zaharra birgaitzeko eta eraberritzeko asmoari ere eragingo dio, eta, horrenbestez, haurreskola eta ludoteka berritzeko lanak ere atzeratu egingo dira. Atxondoko Udalak "deitoratu"

egin du eskolan sukaldea egiteko obren esleipena izaten ari den "atzerapen handia". "Ahalegina egin dugu uda honetan obrak hasi eta amaitu zitezen, datorren urtean eskolako gela berriak estreinatze asmoz, baina Atxondoko Udalaren kanpoko arrazoiengaitik ez da posible izango.

Sukaldeko lanak ez egiteak eraikin zaharra eraberritu eta birgaitzeari ere eragingo die

Guk otsailean eman genuen obrak ahalbidetzeko baimena, baina ezinezkoa izan da", adierazi du Xabier Azkarate alkateak. "Lanean jarraituko dugu gure herriko eskolak gun e berri horiek eta egingo ditugun beste batzuk lehenbailehen izan ditzan, Atxondon Herri Eskola indartzen eta babesten jarraitzeko", gaineratu du Xabier Azkaratek.

Gau Giro, elorriarren uztailleko eguenak girotu gura dituen ekimena, martxan da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urte biko etenaren ondoren, bueltan da Gau Giro, elorriaren eguenak girotu gura dituen ekimena. "Azkenean, heldu da eguna. Pandemiak egurtu gaituen urte latzak pasatuta, berriro ere betiko martxa hartzen ahalegintzen gabilta. Horretarako, auzokideok batu eta berriro ere Gau Giroko kontzertuak antolatu ditugu", azaldu dute antolatzaileek. Uztailleko pin-txopoteak girotzeko asmoagaz, Elorrioko Portalekua, Zubi eta Bikale taberne kontzertuak antolatu dituzte. Euskal Herriko eta kanpoko musikariek parte hartuko dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, estilo anitzeko kontzertuak izango dira, publiko guztiarentzat. Gainera, Gau Giro luzatu eta euren tabernetan afaltzeko aukera egongo dela azaldu dute.

Atzo eman zioten hasiera Gau Girori, Rojo Cancioneroren kontzertuagaz. Uztailaren 14an Selekt 9mm arituko da, uztailaren 21ean Estitxu, eta uztailaren 28an Barrena eta Sala.

Herri bazkaria, Niko Etxart, bertsolariak eta Luhartz Mendiolako jaietan

Barikuan emango diote hasiera San Kristobal jaiei Mendiolan, 19:00etan jarriko dute Donien Atxa

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Donien Atxa jasota hasiko dituzte San Kristobal jaiak Abadiño-ko Mendiola auzoan. Uztailaren 8rako, 19:00etarako, ipini dute horretarako hitzordua. Ostean, Berakatz zopa egongo da auzotarrentzat eta 22:30ean Niko Etxart eta Hapa Haparen kontzertua.

Zapaturako herri kirol erakustaldia, herri bazkaria eta tortilla txapelketa, Onintza Enbeita eta Unai Iturriagaren saioa eta Luhartz taldearen erromeria antolatu dituzte, besteak beste. Jaiei amaiera parrilladarekin emango diote eta Laja II eta Lurtxudioren saioagaz.



Mendiolako jaietako artxiboko irudia.

Sinadura bilketa hasi dute Zelaietako peatonalizazio prozesua gelditzeko

Herriar talde batek sinadu bilketa hasi du; sinadurak herriko denda eta tabernetan jasoko dituzte

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
"Abadiño-ko Udala Zelaietako kaleetan egiten dabilen hiri-berrantolaketa negargarria da. Zelaieta alde bitan zatitu dute, biak elkarregaz inkomunikatuta daude eta batetik bestera pasatu gura duenak errepide nagusira irten behar du", azaldu du ohar baten bitartez Abadiño-ko herritar talde batek. Hainbat auzotar haserre dago, eta, Zelaietako mugikortasunari soluzio bat emateko asmoz, sinadura bilketa hasi dute. Oharrean azaldu dutenez, hauxe eskatu gura diote udalari sinadura bilketa honen bitartez: lehenik eta behin, une honetan egiten dabilen peatonalizazio prozesua gelditzea eta beste faserik ez hastea. Zelaietarako mugikortasun plana birformulatzea, eta peatonalizazio eta mugikortasun planari buruzko parte-hartze prozesuan sortzen diren proposamenak herri galdeketa eramatea.

"Abadiño-ko Udalaren apustua auzoko erdiko kale guztiak autoei zarratzea da, nahiz eta kale

horiek Zelaietako ekonomia eta bizitza bideratu duten arteria nagusiak izan diren beti. Dendariak haserre daude bezeroak arazoak dituztelako dendetara heltzeko, eta zerbitzuetako langileek-suhiltzaileek, osasun-langileek, bana-

Mugikortasun plana birformulatzea eta proposamenak herri galdeketa eramatea gura dute

tzaileek...- ez dakite zelan ailegatu joan behar diren lekuetara. Aldaketa hauek guztiak Zelaietan bizi eta lan egiten duten pertsonen iritzia kontuan hartu barik egin dituzte", jarraitu dute.

Hori horrela, sinadura bilketa bat ipini dute martxan. Beraz, auzotar talde honen eskariagaz ados daudenek herriko denda eta tabernetan dauden eskari orriak sinatu ditzakete.

Ilunabar azoka Elorrion, uztailaren 9an

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Arriola ondoan dagoen Arbola Parkean Ilunabar azoka egingo dute zapatuan. 18:00etatik 23:00etara, hamalau artisau eta sortzaileren lanak ikusi eta erosteko aukera egongo da. Eixu Artisan Elkartetik jakinarazi dutenez, sorkuntza bakar eta

Eixuk Elorrion antolatu duen Ilunabar azokan janari eta garagardo postuak egongo dira

berezi asko aurkituko dituzte bertara doazenek: bitxiak, poltsak, ehungintza osagarriak eta xaboiak, besteak beste. Horrez gainera, janari eta garagardo postuak ere egongo direla esan dute antolatzaileek.

Bestalde, Arte Sonoro Esperimentalak ere egongo da, "arte partekatzen eta gozatzen" jarraitzeko eta Ilunabar azoka girotzeko.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROZTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*



Mañariko plaza familientzako kanpaleku erraldoi bihurtuko dute

Andra Mari guraso elkarteak askotariko ekintzak antolatu ditu astebururako gaztetxoei begira



2019an egin zuten kanpaldiko irudia.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Belarra azpian, izarrak zeruan eta, bien artean, kanpin-denda. Naturaz eta aire libreaz gozatzeko aukera herritik bertatik irten barik. Andra Mari guraso elkarteak

antolatuta, familia askok kanpaleku erraldoi bat bihurtuko dute Mañariko plaza asteburu honetan. 2019ra arte hainbat bider antolatu zuten, beti harrera onagaz, eta pandemiaren ondoren ere berdin

jarraitzen du. 82 lagunek eman duten izena. Guraso elkartetik adierazi dute ez zutela hain erantzun ona itxaroten. Gehienek kanpin-denda hartu, plazan ipini eta hantxe lo egingo dute zapatutik do-

mekarako gauean. Beste batzuek, kanpin-dendarik ipini ez, baina asteburuan zehar antolaturiko askotariko ekintzetan parte hartuko dute: errekako ibilaldian, gaueko ibilaldian, dantzetan, jolasetan, kros lasterketan... Adin tarteka banatuko dituzte ekintzak. Errekako ibilaldian, parte hartzaileek fenomeno bitxi bat ezagutuko dute. Izan ere, udako egunetan Mañaria errekako zati bat urik barik ge-

82 lagunek eman dute izena. Guraso elkartetik diote ez zutela hain erantzun ona itxaroten

Askotariko ekintzak egingo dituzte: errekatik ibilaldia, jolasak, kros lasterketa...

ratzen da Urkuletara bidean, ura lur azpitik doalako. Bide horretan zehar ibiliko dira.

Kanpin-dendak plazako belardian ipiniko dituzte, baina jende askok eman duenez izena, baliteke batzuek belarditik kanpora ere ipintzea denda. Domekan denek elkarregaz bazkalduko dute plaza ondoko Herriko tabernan prestatuturiko paella.

Izurtzako jaietan Luhartz eta Lotxo erromeria taldeek joko dute

IZURTZA • J.D.

Irailaren 2tik 11ra jaiak ospatuko dituzte Izurtzan, eta dagoeneko prest dute jaietako egitaraua. Musikari dagokionez, erromeriak izango dira nagusi aurten: Lotxo taldeak irailaren 4ko domekan joko du, eta

Irailaren 10eko erromeriaren aurretik, tortilla txapelketa eta afaria egingo dituzte

Luhartz taldeak irailaren 10eko zapatuan.

Irailaren 10ean, Luhartzen erromeriaz gainera, tortilla txapelketa eta afari herrikoia ere egingo dituzte.

Jaietako beste egun handi bat Santo Tomas eguna izaten da, irailaren 11n. Jaizalek lagunduta, txistulariek kalejiran irtengo dute, eta egunean zehar igel, mus eta partxis txapelketak eta jubilatuen bazkaria izango dira, besteak beste.

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko turismo bulegoak hirugarren udaz zabaldu ditu atea plaza ondoan. Uztailean eta abuztuan, gutxienez, zabalik egongo da. Orain arte lez, Otxandiora doazen bisitariak herriko ondarearen, naturaren eta ibilbideen gaineko informazioa jaso ahal izango dute bertan. Baina asteburuetan zerbitzu berri bat ere egongo da aurten: bisita gidatuak.

"Bisitariak harrituta geratzen dira Otxandioko historia ezagutzen dutenean, eta bisita gidatuak hori guztia gehiago ezagutarazte-

Bisita gidatuak asteburuetan izango dira, 13:00etan. Erreserbak aurretik egin daitezke

Otxandioko turismo bulegoan bisita gidatuak antolatu dituzte, lehenengoz

Aurten, bisitariak aditu baten azalpenek lagunduta ezagutu dezakete herrigunea



Informazio puntua udaletxe aurreko plazan dago, iturriaren ondoan.

ko modua dira", adierazi du Mikel Sanchezek, Otxandioko informazio puntuko arduradunak. Ez delako berdina informazio panel batean irakurtzea edo aditu baten ahotik entzutea. "Ahoz, bitxikeria gehiago kontatzeko aukera dago. Jendeari asko gustatzen zaizkio horrelako zertzeladak", gehitu du.

Bisita gidatuetan, herriguneko lekurik esanguratsuenak—plaza

inguruko eraikin historikoak, Errementarien Plaza, Andikona Plaza—eta euren historia ezagutu daitezke, 45 bat minutu irautesen duen ibilbidean.

Bisita gidatuak zapatuetan eta domeketan dira. 13:00etan hasiko dira eta ez dago gutxienezko talderik. Baina, aurretik, erreserbak egiteko eskatu dute. Telefonoz (648

265 246) eta turismoa.otxandio@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez egin daitezke. Bisita gidatuak euskaraz nahiz gaztelaniaz izango dira.

Informazio puntua asteko bost egunetan egongo da zabalik. Eguaztenetan eta egunetan 11:00etatik 13:00etara zabalduko dute; barikuetan 17:30etik

20:30era, eta zapatu-domeketan 10:00etatik 14:00etara. Asteburuetako azken orduan informazio puntua itxita egon daiteke, bisita gidatuen arabera.

Uztailean eta abuztuan Otxandiora doan bisitari kopuruaren arabera erabakiko dute informazio bulegoa irailean ere zabaltzea ala ez.

Mallabitarrek irailerako ikastaro trinkoetan izena eman dezakete Ermuko AEKn

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Ermuko Kaltxango AEK-k dagoeneko ekin dio iraileko ikastaro trinkoetarako izen-emateari eta mallabitarrek ere parte hartu dezakete bertan. Lau aste zehar 80 orduko ikastaroa

Irailetik aurrera, Ermuko Kaltxango AEKn 80 eskola ordu emango dituzte lau astean

emango dute eta interesatuek kaltxango@aek.eus helbide elektronikoan idatzita egin dezakete izen-ematea.

Uztaileko ikastaroak dagoeneko martxan dira eta harrera ona izan dutela adierazi dute Ermuko AEKtik. Euskara ikasteko eta praktikatzeko dauden beste aukerak ere gogorarazi dituzte: barnetegiak, familia barnetegiak, Internet bidezko ikastaroak eta kanpo ikastaldi trinkoak, besteak beste.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**> anboto
kide**

Indarkeria matxistari aurre egiteko koordinazio protokoloak 63 biktima artatu zituen iaz Durangaldean

Durango, Elorrio, Abadiño eta Berriz dira protokolo honetan parte hartzen duten herriak, Mankomunitateagaz batera

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera eta koordinazio lanetarako II. Protokoloak iazko urtearen balantzea egin du. Txosten batean jaso ditu protokolo horretara atxikitako udalerrietan (Durango, Elorrio, Abadiño eta Berriz) iaz erregistratu ziren indarkeria matxista kasuak. Kopuru nagusiak honako hauek dira: 63 emakumek indarkeria matxistaren biktima izan zirela salatu zuten iaz. 44 izan ziren Durangon, 11 Abadiñon, 5 Berrizen eta 3 Elorrian. Jasandako indarkeria motari dagokionez, kasuen %87,5 indarkeria psikologikoari zein fisikoari lotutako erasoak izan ziren. Emakumeen %7,14 indarkeria sexistaren biktima izan zen eta sexu erasoak jasan zituzten %5,36k. Erasotzailearekiko hartu emanari dagokionez, erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia izan da kasuen %80etan, eta senide bat kasuen %20an. Koordina-

zio mahaia txostenean zehazten duenez, indarkeria matxistari loturiko kopuruek beheranzko joera agertzen dute 2016tik hona, baina horrek ez du esan gura indarkeria murriztu egin denik; "ezkutatu" egin dela baino.

Datuek beherazko joera duten arren indarkea murriztu barik "ezkutatu" egin dela diote

Andereak elkarteak izan da datu hauen berri eman duena. Elkar-tearen ustez, "prebentzio eta kontzientziakzio neurriak" hartu behar dira. Elkar-teak ezinbestekotzat jo du "udal instantziek salaketa jartzea, udalbatzaren babesa helarazten dielako biktimei, eta konpromisoa hartzen duelako emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko".



Eraso matxista baten kontrako mobilizazioa Durangon.

Zalduakoen txupinazoagaz hasi dituzte jaiak Zaldibarren

Kontzertu eta erromeriak izango dira asteburuan

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko jaiak ekitaldiz beteriko egitarauagaz datoz asteburuan. Gaur, Keike eta KOP taldeen kontzertua izango da txosnagunean. Dantzan egiteko gogotsu daudenentzat, osteran, DJ Josemarigaz dantzaldia prest izango da Euskal Herria etorbidetan.

Zaldibarko Korralaren 75. urteurrena ospatuko dute za-

patuan. 11:00etan, Araiako bandaren kalejira egingo dute. 13:00etan, kontzertua joko dute Zaldua plazan.

Domekarako, bertso saioa antolatu dute. Zaldua plazan izango da. Nerea Ibarzabal, Beñat Gaztelumendi, Peru Abarrategi eta Jone Uria bertsolariak igoko dira oholtzara, 18:00etan. Ainhoa Urien abadiñarra arituko da gai jartzaile.



joseba Sarrionandia Abadetxearen aurrean.

Sarrionandiaren liburu aurkezpena lurretan

Munduari bira eman zion ontzia lana plazaratuko du, Uxue Mantzizidor eta Nekane Coello musikariek lagunduta

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ekitaldi sorta prestatu dute Abadetxean uztailerako. *Lur eta Amets* pelikularen proiektioagaz ekin diote Uda Plazara ekimenari, aste honetan. Datorren uztailaren 13an, solasaldi musikatu egongo da, 20:00etan. Joseba Sarrionandiak *Munduari bira eman zion ontzia* liburua aurkeztuko du, Uxue Mantzizidorren eta Nekane Coelloren musikak lagunduta. Uztailaren

20rako, xaboi tailerra antolatu dute. Warmi Lurra proiektuaren sustatzaileek zuzenduko dute ikastaroa, eta 18:00etan hasiko da. Izena aldez aurretik eman beharko da, 666 101 373 telefono zenbakira deituta. Hilaren 20an, 20:00etan, mahai-ingurua egongo da, *Argentinako euskal diaspora* izenburupean. Uztailaren 27an, pintxopotea egongo da, 20:00etan, eta kale zinema, 22:00etan.

San Kristobal txikiko jaiak ospatuko dituzte Berrizen

BERRIZ • J.G.

Auzoetako eta ermitetako jaiak bueltan datoz. Uztailaren 10ean, domekan, San Kristobal Txikiko jaiak ospatuko dituzte Berrizen. 12:00etan meza egingo dute. Ondoren, salda eta pintxoak banatuko dituzte. Iremiñe dantza taldeak

12:00etan meza egingo dute. Ondoren, salda eta pintxoak banatuko dituzte. Iremiñe saioa egingo du

saioa egingo du. Antolatzaileek azaldu dutenez, taberna zabalik egongo da egun osoan. Arratsaldean ere izango dira ekitaldiak. Haurrentzako jolasak eta bola jokoa egongo dira. Jaien aitzakia baliatuta, Oizera bidean dagoen ermita eta bere ingurua ezagutzeko aukera parebakoa izan daiteke.



Zaldibarko jaiak, artxibo irudia.


"Zientzia bere lekuan ipintzea lortzen badugu, gizarteak konfiantza handiagoagaz egingo die aurre erronkei"

'Zientzia kalean' erakusketa Garaiko herrigunean egongo da, uztailaren 17ra arte. Durangaldeko zientzialariak dira proiektuan parte hartu dutenak

GARAI • EKAITZ HERRERA
Vega Asensio Herrero (Durango, 1978) eta Edu Ogando Arregi (Legazpi, 1976) Abadiñon bizi diren zientzialari bi dira. Biologoa eta ilustratzailea da lehenengoa. Fisikaria eta irakaslea bigarrena. Haien zereginetarikoa bat Garain erakusgai dagoen *Zientzia Kalean* erakusketa lantzea izan da. Panteletako infografiak Asensiok eta bere NorArte estudioko lankideek diseinatu dituzte. Ogandok aholkularitza lanak egin ditu infografiatan azaltzen diren hainbat gairen inguruan. Herritarrek deitu dituzte, Garaira joan eta panelekin "harriztera".

Izenak ondotxo dio: Zientzia kalean. Zein garrantzia du zientzia kalera ateratze horrek?

Vega Asensio: Esango nuke hiru gako daudela. Batetik, infografiak kalean kokatze hori. Bigarrena, kontatzen den zientziari dagokio. Ez da zeozer abstraktua. Ogia, jogurta, kotxea, sukaldeko plaka, iturriko ura, barra kodea,... eguneroko elementuak dira. Eta hirugarrena, lan honen atzean dagoen eskuzabalta-



Edu Ogando Arregi eta Vega Asensio Herrero, erakusketaren aurrealdean.

sunak litzateke. Informazioa duzu, infografiak deskargatu ditzakezu, partekatu. Zientzia ahalik eta eskuragarrien ipintzen ahalegindu gara. **Edu Ogando:** Inportantea da hori, zientzia edonon dagoela konturatzea. Parean duzun iturrian, esku artean duzun mugikorrean... leku guztietan dago.

Erraza izan al da elementu bakoitzaren atzean dagoen zientzia mundu guztiak ulertuko duen hizkuntza batean erakustea?
V.A.: Honako galdera hau hartu dut oinarritzat: Zelan azalduko nioke hau guzti hau neure buruari modu ulergarri batean? Bada, horrela, geure buruari kontatuta bezala

egin ditugu dibulgazio lanak. Asko ikasi dugu adituekin eta infografia bakoitzagaz. **E.O.:** Irakaskuntzan ari garenean ere berdina egiten dugu. Ikasleei modu dibulgatibo batean adierazten dizkiegu gauzak, azalpenak hobeto ulertu ditzaten. Sukaldeko plaka infografia batezaz azaltzean

ere, berdina. Sinplifikatzen ahalegindu behar duzu, jendeak ulertu dezan, baina ez gehiegi sinplifikatzen, azalpenak zentzurik galdu ez dezan. Oreak bat topatzen ahalegindu gara. **V.A.:** Datu estatistikoak, gauza kuriosoak, elementuen osagaiak, anatomia,... erabili ditugu panelak ilustratzeko. Infografia bakoitzak 10etik 20 bertsiora artean izan ditu, behin betiko emaitza lortu arte. Diseinuek joan-etorri asko izan dute. **Behar den moduan baloratzen al dugu gailu eta elementu bakoitzaren atzean dagoena?**
V.A.: Horixe da gure erronka. Dibulgaratzaileak garen aldetik, herritarrengan jakin-mina pizten segitu behar dugu. Zientzia zer den azaltzen, baloratzen. Zientzia bere lekuan ipintzea lortzen badugu, gizarteak konfiantza gehiagorez egingo die aurre erronkei. Konfiantza izango dute zientzialariaren lanean, kasu gehiago egingo zaie, politikariek diru gehiago bideratuko dute. Errobera bat da dena.

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

L'Atelier-eko dantzariak emaitza ezin hobea lortu dute 'Vive tu sueño' lehiaketan

Marbellan (Espainia) jokatu den dantza lehiaketan, Durangoko L'Atelier eskolako 70 ikaslek parte hartu dute

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Marbellan (Espainia) jokatu den dantza lehiaketan, Durangoko L'Atelier eskolako 10 taldek, zazpi bakarlarik eta bost bikotek parte hartu dute. Guztira, 18 sari lortu dituzte. BabyStars, PetitStarlights eta Starlights taldeek lehenengo saria lortu dute dantza klasikoan, bakoitzak bere mailan, eta bikote-

ka ere lehenengo saria lortu dute. Dantza garaikidean, Boomlighth, Boom Run eta Boomshock taldeek lortu dute lehenengo saria, bakoitzak bere mailan. Eta, open mailan, Anne Etxebarriak eta Imanol Reyerok osaturiko bikotea izan da garailea. Bakarlarik modura, Imanol Reyerok eta Markel Sever izan dira garaileak.



L'Atelier eskolako dantzariak, Marbellan.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Aramotz Berritu errealtate bat izango da

Duela egun batzuk, guk, Durangoko sozialistok, genekiena publiko egin zen; Durangoko Aramotz Berritu proiektuak, hau da, auzoaren hiri-berronertzeari dagokionak, 3,6 milioi euro lortu zituela Next Generation funtsetatik.

Ez pentsa halako kantitatea lortzea erraza izan denik, atzetik lan handia dago. Lan hori udaleko teknikariak, auzotarrek eta Gobernu sozialistak egin dute.

Proiektua 2018an sinatu zen, Durangoko PSEk bultzatuta, baina azkenaldian hainbat atzerapen eta oztopo (lehengaien krisia eta prezioen igoera, batez ere) egon dira. Horregatik, Durangoko PSEren bozeramailea, ni neu, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin jarri nintzen kontaktuan. Gure ardura adierazi nien, eta, hasieratik, Eusko Jaurlaritzatik proiektuarekiko konpromisoa erakutsi ziguten. Hauek, Espainiako Gobernuarekin eta PSEko ordezkariarekin jarri ziren harremanetan, eta honen baietza lortu zuten.

Nahiz eta urtarrean Espainiako Gobernuaren konpromisoa eduki, behin betiko hitzarmena ez da ekainera arte iritsi, baina, azkenean, lortu da.

Durangoko Udal Gobernuaren lan bakarra argazkian ateratzea izan da; aitzitik, Aramotzeko bizilagunak, udaleko teknikaria eta sozialistak (Durango PSE, Eusko Jaurlaritzza eta Espainiako Gobernu) izan gara hori defendatu dugunak eta horren alde borrokatu garenak.

Horrek erakundearen arteko harremanen garrantzia erakusten du, izan ere, Durangoren aldeko proiektuak lortzeko beste bide bat da; beraz, zaindu ditzagun eta ez gaitzen isolatu.

Durungaldea asteen

Garbiketako ibilgailu eta edukiontzia berrituko dituzte Zornotzan

ZORNOTZA | Garbitasuneko makina elektriko bi, lau ibilgailu arin eta petrolio-gas likidotuagaz (PGL) funtzionatzen duen kamioi laguntzaile bat gehitu dute zerbitzura. Birziklapena sustatzeari dagokionez, udalak 400 edukiontzi berri ipini ditu udalerrian zehar. Hobekuntza horiei eskerrak, "bilketa-denbora murriztu" eta "kamioien gas-isurketa" murriztuko dela azaldu dute udaletik.

Bittor Arginzonizen Etxebarri jatetxea Europako hirugarren jatetxerik onena

ATXONDO | OAD gastronomia gidaliburuak Europako jatetxerik onenen zerrenda kaleratu berri du eta Bittor Arginzoniz atxondarraren Etxebarri jatetxea hirugarren postuan kokatu du. Bestalde, Eneko Atxa zornotzarraren Azurmendi jatetxea hamahirugarren lekuan sailkatu dute.



Elorrioko eskulan tailerrekoek Argiñetako kofradian dagoen murala berriztu dute

ELORRIO | Elorrioko eskulan tailerrekoek Argiñetako kofradian dagoen murala berriztu dute aste honetan. Orain hiru urte egin zuten murala kofradiako horman, 2019an, eta harrezkero hainbat pintada egin diote. Pintada horiek kendu eta itoginek egindako kalteak konpondu dituzte, besteak beste.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

M, AMA, EME, UME
Erika Lagorna / Estibx Fernandez (Elkar)

MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)

ERMITAK BIDE, DURANGALDEA BIZI
Ramon Castillo / Ibon Murua (Alpino Tabira)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso



Otxandioko jaiak 2022

Uztailak 15, barikua

20:00 Oihandi abesbatzaren 50. urteurreneko kontzertua, elizan.

21:30 Afari herrikoia.

Uztailak 16, zapatua

11:00 Street Boulder.

13:00 Txupinazoa.

13:05 Trikipoteoa.

14:30 Gazte bazkaria.

16:30 Bingoa.

18:00 Olinpiadak.

22:00 Kontzertuak: Gorrotoa Gorroto, Estutu eta DJ Rosamari Gaztetxean.

Uztailak 17, domeka

18:30 Ohiko Salve Regina abestuko da, Oihandi abesbatzagaz batera.

19:00 Soinubilen eskutik ‘Gora Otxandioarrak’ abestia.

19:15 Txupinazoa.

19:20 Danborrada.

20:00 Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan, Giza Eskubideen Udal Batzordeak deiturik.

20:30 Erromeria Trikizio taldeagaz.

20:30 Eusko Labelen haragi pintxoak.

23:00 Erromeria Trikizio taldeagaz.

Uztailak 18, astelehena

12:00 Otxandioko banderagaz kalejira.

Ondoren, Otxandioko txistulari eta dultzaineroak.

12:30 Meza nagusia.

13:15 Umeen pilota partiduak, plazan.

17:30 Herri kirolak, plazan.

19:30 Urduri dantza taldearen eskutik ikuskizuna, plazan.

22:30 Erromeria Joselu Anaiak-en eskutik.

Uztailak 19, martitzena

12:00 Magia saioa.

12:30 Arimen meza.

13:30 Umeen bazkaria, plazan.

16:30 Emozio eta abilezia erronka.

16:30 Puzgarriak eta tailerrak.

17:00 Tute, mus eta briska txapelketak.

19:00 DJa plazan.

Uztailak 22, barikua

19:30 Kalez kale kantari Soinubilen eskutik.

20:00 Soka dantza, plazan.

20:30 Kalez kale kantari Soinubilen eskutik.

22:30 Play-backa, plazan.

Uztailak 23, zapatua

11:00 Otxandioko bandaren kalejira eta ondoren dultzaineroen kalejira.

12:30 Meza San Martinen.

14:00 Paella txapelketa San Martinen.

16:30 Trikitilariak: Ziortza eta Leire San Martinen.

19:00 Sakatu elektrotxaranga, kalerik kale.

22:30 Kontzertuak: Kerobia, Dupla eta Zirkinik Bez herriko plazan.

Uztailak 24, domeka

07:30 Diana eta kalejira.

08:00 Sokamuturra.

12:00 Meza nagusia.

13:00 1936an bonbardaketan hildakoei omenaldia, Andikonan.

13:45 Limonada plazan.

14:00 Otxandioko eta Araiko banden kontzertua, plazan.

17:30 Herritarren arteko pilota partiduak, plazan.

19:00 Pilota partiduak, plazan. II. plazaz plaza txapelketa. Ados pilota elkartearen eskutik.

20:00 'Gu gara legea' antzezlan, plazan.

22:00 Erromeria Erruki taldearen eskutik.

LORA

TABERNA · OTXANDIO

Tel.: 677 568 580 / 945 368 931 · lorataberna@gmail.com

danoena

taberna

UDAN EGUNERO
ogitartekoak
hanburgesak
plater konbinatuak
eta pizzak

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

ETXEBARRI
LANDETXEAK

945 450 123 · 676 947 523
OTXANDIO Olaetara bidean

WORLD CHAMPION
IDIAZABAL
PADIOLA

Kerizara Baserria

► Kontaktua: Jalone Ajuria Otxandiano
► Mugikorra: 605 771 479

HONTZA
EXTREM

DEMONIZAKO ABENTURA PARKEA

Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com



Oihandi abesbatzak eta Mirugain Mendi Taldeak jaurtiko dute jaien hasierako txupinazoa, euren 50. urteurrenean

Oihandik kontzertu berezi bat emango du jaietan, urteurrena ospatzeko; Mirugain hainbat irteera eta ekintza antolatzen dabil urte osoan zehar

TXUPINAZOA • JOSEBA DERTEANO

Otxandion tradizio luzea duten elkarte bi izango dira aurtengo protagonistak uztailearen 17ko txupinazoan. Oihandi abesbatzak nahiz Mirugain Mendi Taldeak 50 urte bete dituzte eta elkarregaz egongo dira udaletxeko balkoian jaiiei hasiera ematen.

Elkarte biek ondo ezagutzen dute elkar. Oihandin Mirugain taldeko kide bat baino gehiago dabil, eta alderantziz ere berdina gertatzen da. "Egia esanda, gutariko asko elkarte batean zein bestean ibilitakoak gara", dio Tomas Pujanak, Mirugaineko kideak. Pujana bera koruan ibilia da mutikotan. Elkarte bietakoak pozik daude txupinazoa jaurtitzeko aukeratu dutelako eta ohore hori partekatuko dutelako.

Oihandiren kontzertuan, Txomin Bengoak urteurrenearen harira sorturiko abesti bat kantatuko dute

kin. Baina emanaldia beste arrazoi bategaitik ere izango da berezia: koruko kide den Txomin Bengoak Oihandiren urteurrenaren harira sorturiko abestia lehenengoz kantatuko dute.

Uztailearen 16tik 18ra, abesbatzaren inguruko erakusketa bat egongo da ikusgai, Bolalekuan. Argazkiak, uniformeak, partitura zaharrak... erakutsiko dituzte.

Gaur egun, 33 kidek osatzen dute korua. Iaz, abesbatzari aupada berri bat emango zion zuzendari berri baten bila hasi ziren, eta lortu dute. Patricia Pazos musikari profesionalak hartu du koruko gidaritza. Galiziarra jaiotzez, Gasteizen bizi da gaur egun. Martxotik dabilta beragaz.

Mirugain Mendi Taldekoek Sierra Nevadara irteera antolatu dute irail hasierarako

Mirugainen egitarau zabala

Mirugain Mendi Taldea urte hasi zenetik dabil urteurrena ospatzen. Maiatzean, Fundazio martxa arrakastatsua egin zuten eta plaza bete jende batu zen bazkari herrikoian. "Denak oso ondo irten zuen eta pozik gaude", dio Pujanak.

Aurrera begira, hainbat irteera dute. Esaterako, irail hasieran Sierra Nevadara (Granada) joango dira. 50 urtean makina bat lekutara joan dira taldean, baina Sierra Nevadara ez. Horregaitik erabaki dute hara joatea.



Oihandi abesbatzaren kontzertua uztailearen 15ean izango da, Otxandioko elizan.



Mirugain mendi taldeak maiatzean egindako Fundazio martxako irudia.

Kerobia, Dupla eta Zirkinik Bez taldeek kontzertuak emango dituzte uztailearen 23an, Otxandioko jaien barruan

MUSIKA • J.D.

Otxandioko jaien barruan, askotariko musika kontzertuez gozatzen auzokera egongo da. Beharbada, uztailearen 23ko jaialdia izango da indartsuena, Kerobia, Dupla eta Zirkinik Bez taldeekin.

2014an hamalau urteko ibilbideari amaiera eman eta gero, iaz berriro batuko zirela iragarri zuen Kerobia talde nafarrak. Hurrezkeror, disko bi kaleratu dituzte, eurretari bat bikoitza, eta abesti berriak plazarik plaza aurkezten

dabilta. Dupla talde aguraindarrak ere kaleratu zuen disko bat iaz, euren ibilbideko bigarrena, punk eta rap doinuak uztartzen dituen. Azkenik, Zirkinik Bez talde zornotzarraren erromeriak emango dio amaiera jaialdiari.

Otxandioko Gaztetxean ere musika jaialdia antolatu dute uztailearen 16rako. Kasu honetan, Gorrotoa Gorroto eta Estutu taldeek emango dute zuzeneko, eta, ondoren, DJ Rosa Mariren txanda izango da.

Jaietako musika eskaintza Tri-kizio taldearen, Joselu anaien eta Erruki taldearen erromeriek osatuko dute, uztailearen 17an, 18an eta 24an, hurrenez hurren.

Jaietako kartela

Aurtengo jaietako kartel lehiaketa Maialen Garaigordobil otxandiarak irabazi du. Lehiaketara aurkezturiko hiru proposamenen artean, epaimahaiak berea aukeratu zuen aurtengo Santamaña jaiak iragaritzeko.



Kerobia taldeak uztailearen 23an joko du kontzertua Otxandion. SILVIA CATALAN



AMOREBIETA-ETXANOKO JAIK 2022

KARMENAK ETA SANTANATXU

UZTAILAK 15 - 27



amorebieta
etxano

www.amorebieta-etxano.eus

Zornotzako jaiak 2022

Uztailak 15, barikua
20:00 Pregoia, txupinazoa eta ZORHONTZAREN kalejira, ONDALAN, ISKADI, Bermeoko KIETB eta Amorebieta-Etxanoko UDAZKEN BARRIA, eta ETXANOk erraldoi eta buruhandien konpartsak, UDAZKEN txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Bandagaz. Herriko plazan.
21:30 Kaleko Musika. Euskoorleans Dixie Band. Euskal Herria plazan/Kalbarioan.
22:30 Kontzertua. Doctor Deseo. Zubiondon.
23:00 Erromeria Zirkirik Bez! Zelaieta parkean.
Uztailak 16, zapatua
Goizean KARMENGO JAIA. Meza, bertsolariak, UDABARRI dantza taldea, eta Euskal erromeria TRIKI PIU taldeagaz. Larrean.
Ondoren , Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga, Larreako landetan. Hodei Ezpeleta vs Julen Basozabal HARRIJASOTZAILEAK Emakumeak: Karmele Gisasola ‘ZELAI III’ (Mallabia) Gizonak: Josetxo Urrutia (Leitza)
11:00 Gure Kirolak. Umeentzako Bolo Txapelketa, bolatokian. Ant: Club bolos Zornotza
11:00 Udazken taldearen kalejira herrian zehar.
12:00 Arku-tiroa. Larrea eskolako patioa. Ant.: Ostadar
17:30 Kuadrillen arteko altxorraren bila, Zelaieta parkean. Ant.: Zornotzako kuadrillak
18:00 Pilota partidu profesionalak: Morgaetxebarriaren debuta ALBERDI II-URIONDO VS ZUBIZARRETA-ARETXABALETA URRUTIKOETXEA-ELIZEGI VS LASO MORGAETXEBARRIA Ant.: Lagun Onak pilota elkarte
16:00 Amorebieta-Etxanoko IV. Duatloi Txikia, Zelaieta parkean. Ant.: Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldea
18:00 Bizikleta Eguna. Zubiondo parkean – Herriko plazan. Ginkana. Ant: Urgozo iturria txirrindulari elkarte
20:00 Kittu kaleko musika. Andra Mari plazan/ Gernika plazan/ Zezilia Gallartzagoitian/San Juanen/Kalbarioan/ Luis Urrengoetxean
20:00 ¡QUE BUEN DIA! Herriko plaza. Kale Antzerkia, gaztelaniaz. Cia Maite Guevara.
21:00 Karmenetako X. Bolo Txapelketa, bolatokian Ant: Club bolos Zornotza
22:00 Rat-Zinger, Erruki Erromeria kontzertua. Zubiondo plazan.
22:30 En Esenzia kamp berbena. Zelaieta parkean.
Uztailak 17, domeka
10:00 XI. Xake Txapelketa. Herriko plazan Agustín Zamakona Memoriala Aldi bereko 50 xake partida Ant.: Club de ajedrez Zornotza
10:00 Rallyen Kotxeen Erakusketa. Zelaieta parkean. Ant: Lanzero Classic

17:00 Kuadrillen arteko piragua jaitsiera. Ibaizabal errekan. Ant: Zornotzako kuadrillak.
17:00 Karmenetako Xiv Esku-Pilota Txapelketa Federatuen finalak Amorebieta IV frontoian Ant: Lagun Onak pilota elkarte
18:00 ‘Akaboi!’ kale antzerkia euskaraz. Herriko plazan
21:00 Bertsolariak Zelaieta parkean: Alaia Martin, Aitor Bizkarra, Jone Uria, Igor Elortza. Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola.
22:30 Kontzertua: Sorotan Bele Gogoan eta Zornotzako Musika Banda. Zubiondo parkean.
Uztailak 22, barikua
13:00 Kuadrillen kalejira Kalbario plazatik. Ant.: Zornotzako kuadrillak
15:00 Kuadrillen arteko bazkaria. Zelaieta parkean. Ant.: Zornotzako kuadrillak
18:00 Sakatu Elektrotxaranga Luis Urrengoetxea Kaleko musika Ant.: Zornotzako kuadrillak
21:30 Txistularien XXII. Kontzertua Zelaieta parkean. Artista gonbidatua: Jon Allende Ant.: Udazken Txistu Taldea
22:30 Kontzertuak: Supercremalleras eta Tremenda Jauria. Zubiondo plazan.
Uztailak 23, zapatua
10:00 BASKET 3x3. Zubiondo parkean Ant.: Zornotza SaskibaloI taldea
10:30 Marmitako Lehiaketa. Zubiondo parkean. Ant.: Zornotzako kuadrillak
17:30 Gozategi erromeria, Zubiondo plazan.
19:00 Kolpez Blai Batukada. Gernika plazan/ Andra Mari plazan/ Zezilia Gallartzagoitian
21:00 Kolpez Blai Batukada kaleko musika. Kalbarioan/ Luis Urrengoetxean
22:30 Kanp berbena Zelaieta parkean: Jamaica Show Orkestra
23:00 Kontzertua Zubiondo plazan: Romea eta Merina Gris DJ jaia: DJ Romea
Uztailak 24, domeka
Goizean baserritarren azoka. Zezilia Gallartzagoitia. Ant.: Enba
10:00 Amorebieta-Etxanoko XI. Jai Lasterketa Zubiondo parkean Ant.: Zornotzako korrikalariak
11.00 Ontzi-Modelismoaren Erakustaldia. Jauregibarrian. Ant.: Bilbo Model Club
11:00-14:00/17:00-19:00 Umeentzako egurrezko jolasak. Euskal Herria plazan.
11:00 Euskal Herriko artzai txakurren txapelketa. Jauregibarria parkean. Ant.: Artxate elkarte
12:00 Musika kalean, Triki Piu. Gernika Plazan/ Andra Mari Plazan/Zezili Gallartzagoitian
17:00 XIII. Pala Txapelketa. Herriko Txapelketako finalak. Amorebieta IV Frontoia Emakumeen IV. Pala Txapelketaren finalak. Ant.: Erdu Pilotan
18:00 YIJAAAA! Kale Antzerkia, euskaraz. Herriko plazan. Goitibera taldea.

22:00 Danborrada: Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza.
22:30 Kontzertuak: La Topadora eta Kilimak, Zubiondo plazan.
23:30 DJ Txurru Zelaieta parkean.
Uztailak 25, astelehena
11:00-14:00 / 17:00-19:00 Familientzako jolas interaktiboak eta minigolfa. Gernika plazan.
19:00 Kuadrillen arteko herri kirolak. Zelaieta parkean. Ant: Zornotzako kuadrillak
20:00 ‘Por Hacer Un Favor’ kale antzerkia, gaztelaniaz. Trapu Zaharra. Herriko plazan.
21:00 Mariachi Mexico Lindo Sí Señor musika kalean, Gernika plazan - Zezilia Gallartzagoitian
22:00 Mariachi Mexico Lindo Sí Señor. Zelaieta parkean.
22:30 Dron ikuskizuna. Jauregibarrian.
23:00 Xabi Aburruzaga kontzertua. Zubiondo plazan.
23:30 Dron ikuskizuna. Jauregibarrian.
Uztailak 26, martitzena
11:30-13:00 Umeentzako zirku tailer irekia/inklusiboa. Zelaieta parkean.
13:00 Umeentzako zirku ikuskizuna: Zirkoteke. Zelaieta parkean.
18:30 Umeen danborrada. Ibilbidea: Gudari, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Konbenio; Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Zelaieta.
21:30 Kuadrillen arteko play back lehiaketa. Zelaieta parkean. Ant.: Zornotzako kuadrillak
22:00 Julen Alonso eta Oinkari dantza taldea. Kontzertua-dantza. Zubiondo plazan.
Uztailak 27, eguaztena
12:00-14:30/16:00-17:00 Gaztetxoentzat wipe out parkea.
15:00 Kuadrillen arteko Santanatzuko bazkaria Zelaieta parkean Ant: Zornotzako kuadrillak
17:00 Kuadrillen arteko wipe out. Ant: Zornotzako kuadrillak
19:00 Zornotza 11 kolore eta Zorhontzaren Agurra. Zelaieta parkean. Aniztasunaren kalejira. Ant: Zornotzako kuadrillak
21:30 Rockalean Elektrotxaranga, Luis Urrengoetxean.
22:00 Egan erromeria. Zelaieta parkean.
22:30 Camela kontzertua. Zubiondo plazan.

PREGOIA • IGOR GALARZA

Urtero, Karmengo jaietan pregoia jaurtitzeko ohorea eskaintzen zaila pertsona edo talde bati, urte osoan zein jaietan herrian egindako ekarpenaren esker ona adierazteko asmoz. Aurten, Udazken Txistulari Taldeak izango du ardura hori, taldea kalera irteten hasi zela 25 urte bete diren urte berean. Iban Ibarretxe Mezo (Zornotza, 1973) taldeko kidea da eta ez du ezkutatu "urduri" daudela.

Igartzen duzue pregoilariak izatearen urduritasuna?

Bai, urduri gaude. Txakoli pare bat hartu beharko dugu pregoia irakurri orduko, dena ondo irten dadin. Tijuana taldeak abesti batean esaten zuen lez, "*¿y qué podemos hacer para sacudirnos del miedo? ¡Bebe y olvídalos!*"

Zornotzako jaiak bueltan dira, eta, tartean, zeuek ere arituko zarete. Zein da zuen egun handia? Baduzue emanaldi berezirik?

Ez nintzateke ausartuko egun berezi bat aukeratzen, baina argi dago bi direla egunik aipagarrienak. Bat txupinazoaren eguna da, datorren barikua; eta bigarren egun berezia txistu alardearen eguna izaten da, aurten uztailaren 22a. Aurtengoa XXII. edizioa izango da, gainera. Dena dela, ezin ditugu ahaztu Larrea auzoan ospatzen den Karmen eguna eta uztailaren 25ean izaten den amama-aititen eguna.

Ibilbide berezirik egingo duzue?

Bai, Karmen egunean ibilbidea egokitu egiten dugu apur bat. Egun horretan Larreara joaten gara kalejiran, 16an bertan ospatzen da jaia eta. Oso egun polita izaten da. Hori eta Santanatu eguna izango dira, beharbada, egunik nostalgikoenak. Gainerako kalejiretan, erdialdetik ibiltzen gara. Hala ere, urtean zehar domekero egiten ditugun kalejiretan txistu doinua Zornotza osora eroaten ahalegintzen gara. **Zelan bizi dituzue Zornotzako jaietako aste horiek?**

Jaiak oso gure sentitzen ditugu. Euskararik bako jairik ulertzen ez dugun moduan, txistularirik bakoa ere ezin dugu ulertu.

“Euskararik bako jairik ulertzen ez dugun moduan, txistularirik bakoa ere ez”

Gaur zortzi, uztailaren 15ean, Karmen jaiei hasiera emango diete Zornotzan. Aurten, Udazken Txistulari Taldeak 25 urte bete ditu eta taldeari eskaini diote pregoilari lanak egiteko ardura. 20:00etan izango da, Herriko plazan



Orain arte bertan egon gara eta bertan egongo gara.

Errepertorio berezirik prestatzen duzue jaietarako?

Txistu alarderako beti prestatzen ditugu abesti desberdinak, egokien arabera. Momentuko egoera zein den ikusi, eta abesti bat edo beste bat sartzen dugu. Gainera, urtero abeslari bakarlari bat ekartzen dugu gugaz abestu dezan, eta bere kanta moldatu egin behar izaten ditugu. Esate baterako, Enrique Villarreal 'El Drogas' etorri zenean, *Blanco y negro* jo genuen, eta Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel gonbidatu genuenean, *Jo Ta Ke*

sartu genuen errepertorioan. Eta horrelako kanta egokitu behar izaten ditugu, bai txisturako bai gainerako musika-tresnetarako. **Domekero irteten duzue kalera. Zein izaten da ohitura?**

Orokorrean, erdialdetik ibiltzen bagara ere, noizbehinka Zornotzako leku urrunagoetara joaten gara. Eta asko eskertzen digute. Jakina, goizetan itzartzen ditugun batzuentzat gogaikarriak izango gara, baina atzetik umeak txaloka eta dantzaz izateak sortzen digun pozak ez dauka parekorik. **Zer bilakaera izan du txistulari taldeak urteotan?**

Urteen joan-etorrian talde itzela batu da Udazken taldearen inguruan, eta gaur egun 30 bat kide gara

1997an hasi genituen kalejirak. Hasiera hartan, nire anaiak, Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrietak eta nik neuk irteten genuen kalerik kale. Gero, herriko hainbat txistulari batu zitzaigun eta musika eskolako gazteak ere bai. Urteen

joan-etorrian talde itzela batu da Udazken taldearen inguruan, eta gaur egun 30 bat kide gara. **COVIDa apurka ahazten doa, eta zuek bere garaian erabiltzen zenuzuten pantailak ere ahaztuko zenuzuten.**

Jakina! Sasoi hori kaka zaharra izan zen denontzat, eta guk ere egoerara moldatu behar izan genuenez, aurpegiko pantailekin irteten hasi ginen. Balkoietan hainbeste *polizia* egotera, ez geneukan beste aukerarik. Eta jakina igartzten dela. Orain txistulariak gara, eta COVID garaian *antidisturbioak* ginela ematen zuen (barrez).



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

ZATOZ JAIETAN GURE TXOSNARA!

946 732 950
zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus



TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

“Kartelerako, 'Patata' eta buruhandiak ikusi nituen, eta horiei heldu nien”

Cristobal Aguilo izan da aurtengo jaietako kartelaren egilea. Plastilina da bere jaietako lanen protagonista nagusia

ZORNOTZA • IGOR GALARZA

Zornotzako Karmen eta Santanatzu jaietako kartela Cristobal Aguilo murtziarrarena da eta ANBOTOK telefonoz egin dio elkarrizketa. Zornotzako jaietako kartel irabazlearen egileak jakin-mina izan du herriko eskulturen eta ezaugarrien jatorriak ezagutzeko.

Zelan izan zenuen Zornotzako kartel lehiaketaren berri?

Kartelgintzan lanean nabil azken 12 urteetan. Asko egindakoa naiz. Jaietako kartelgintzan aditua den baten orrialde batean sartzen naiz. Bertan, nongo jaiak diren eta informazio guztia dago eskuragarri.

Zerbaitetan oinarritu zara kartela egiteko?

Asko informatzen naiz. Jaietako kartel bat egiterakoan, zentzua duten ezaugarriak ateratzeko modu bakarra da. Lehen, gataxoa zen dena, Internetik barik geunden eta gora eta behera ibiltzen ginen informazio bila. Orain, ordenagailuan eskura dago dena. Bilatzailean ‘Zornotza’ idatzi, eta hor jaietan zer egiten den eta abar agertzen zaizkizu.

Zelan aurkitu zenuen kartel lehiaketaren iragarkia?

Ez dut ondo gogoratzen noiz ikusi nuen iragarkia, ezta noiz erabaki nuen ere parte hartu gura nuela. Jesarri eta kartela egin gura nuen, baina beste gauza batzuetan joan zitzaidan denbora. Beti nabil proiektu askotan sartuta. Lehiaketaren azken astean hasi nintzen kartelagaz buru-belarri. Egun eta erdian ideia bururatu,

eta forma eman nion. Batzuetan gertatzen da lehiaketan parte hartzea erabakitzea, baina ideia finkorik ez izatea eta galduta sentitzea.

Zenbat ordu eskaintzen dizkiezu zure lanei?

Jada ez dakit zer den ordutegi finkoa (barrez), autonomia naiz eta. Nire kartel mota honek denbora eskatzen du. Azken batean, den-

Irabazten ditudan kartel lehiaketetako jai guztietara joan beharko banu, urte osoa mozkortuta pasatuko nuke

bora asko behar izaten da informazioa bilatzeko eta informazio horri zukua ateratzeko.

Nondik ekin zenion karteletako ideari?

Lekuko ezaugarriren bat ipini behar da beti, bestela ez luke zentzurik izango. Kartelerako, 'Patata' eta buruhandiak ikusi nituen, eta horiei heldu nien. Uste nuen baliagarriak zirela konposizio zentral bat eta istorio bat osatzeko. Ez naiz kartel politen bila joaten diren horietarikoak. Istorioak kontatuz kartelak osatzen duenetarikoak naiz. Nire lanetan momentuak kontatzen ditut, kontzeptuak, bitxikeriak, zerbait. Gehiago kostatzen zait zerbait polita egitea hori bilatu guran banabil, gustuko dudana ideia batetik ekinda baino.

Kolore bat nabarmentzekotan, urdina da nagusi.



Cristobal Aguilo Dominguez

Jaietako kartel egilea

CARTAGENA (MURTZIA) | 1968

Jaietan, puxikak urdinak dira, zapiak ere urdinak... eta kartela jaiagaz lotu gura nuen. Keinu txiki bat da. Ideia ateratzeko eta erakitzea da gehien kostatzen dena, baina, gainerakoan, Zornotzako jaietako kartela erraz ateratzen da.

Zergatik plastilina?

Orain urte asko hasi nintzen plastilina gatz. Lehen, publizista lana egiten nuen eta plastilina erabiltzen nuen produktu batzuen iragarkiak egiteko. 2010ean kartelgintzagaz hasi nintzen, bigarren kartela egiterakoan plastilina hartu nuen oinarri, eta hareguz lehiaketa bat irabazi nuen. Hurrengo ere berdina egin nuen, eta berriro ere irabazi. Harrezkero, plastilina gatz egiten ditut. Oso ondo pasatzen nuen, eta oraindino ere oso ondo pasatzen dut

horrela lan egiten. Beste batentzat teknika gatz izan daiteke, baina nik denbora asko daramat teknika horregaz eta erraza egiten zait. **Egunen batean Zornotzara etorri beharko duzu.**

Gustura joango nintzateke. Gaine-

ra, Euskal Herria oso polita iruditzen zait. Baina irabazten ditudan kartel lehiaketetako jai guztietara joan beharko banu, urte osoa mozkortuta pasatuko nuke (barrez). Lana dut, familia bat... oso gatz da dena ailegatzea.


Jaialdi
Euskal jantziak

Jaietarako erropak, baserritarrez zein arrantzalez jantzita joateko. Kuadrilenzako kamisetak.

Uda ona pasa!

Plaza Andra Mari 6. 48340 Amorebieta
info@jaialdi.eus - www.jaialdi.eus


Z@S
informatika

ORDENADOREAK
OSAGARRIAK
KONPONKETAK
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA


TicketBAI

Tel.: 94 630 12 12
info@zasinformatika.com
Gregorio Mendibil 9 behea
(Amorebieta-Etxano)



Zatoz
ZORNOTZAKO
BARNETEGIRA
uda honetan

**ZORNOTZAKO
BARNETEGIA**

Euskara

BIZI, IKASI, GEROA IRABAZI!

Tel.: 946 308 304 • info@zornotzakobarnetegia • www.zornotzakobarnetegia.eus

Udazken Txistulari Taldearen pregoiagaz hasiko dituzte Zornotzako jaiak

20 kontzertu eta musika emanaldi baino gehiago izango dira; tartean, Doctor Deseo, Gozategi, Merina Gris, Egan eta Camela taldeak. Aurtengo nobedadeen artean, uztailaren 25eko su artifizilen ordezkari ikuskizuna antolatu dute

AURKEZPENA • I.G.

Uztailaren 15ean, 20:00etan, Udazken Txistulari Taldeak pregoia irakurri eta txupinazoa jaurtiko du. Horrela hasiko dituzte jaiak Zornotzan. Egitarau oparoa prestatu dute datozen asteetarako, eta, ekintza horien guztien berri emateko, asteen prentsaurrekoa egin dute udaletxean.

Luciano Martínez zinegotziak azaldu duenez, "25 urte betetzen dira, mende laurdena, Udaberri taldeak musikatik eta tradizioz gure kaleak alaitasunez eta une onez betetzen dituela. Aukera paregabea izango da udalak eta zornotzarrek merezitako omenez egin diezaien". Txupinazoa jaurti ondoren, kalejira egingo dute Zorhontza, Ondolan, Iskadi, Bermeoko Kietb, Amorebieta-Etxanoko Udazken Barria eta Etxanoko erraldi eta buruhandien konpartsekin, eta Udazken eta Zornotzako Musika Bandaren gaitero eta txistulariekin.

Andoni Agirrebeitia alkatea pozik agertu da Karmen eta Santanatu jaiak normaltasun osoz ospatu ahal izango direlako: "Pozez hartuko ditugu egun hauek, pandemiaren urte gogor bien ondoren normaltasunera bueltatzea esan gura du horrek eta. Gure artean



Luciano Martínez zinegotzia, Andoni Agirrebeitia alkatea, Udazken Txistulari Taldeko Iban Ibarretxe eta Ainhoa Salterain zinegotzia.

ez dauden pertsonak gogoratu gura ditut, eta oso egoera mingarrietan lagun izan dituztenak. Eta aitorpen horretatik etorkizunera begira jarri, eta jaiak pozez eta itxaropenez bizitzera gonbidatu gura ditut zornotzarrek".

Aimar Morgaetxebarria
pilotari zornotzarrek
profesionaletan
debutatuko du, etxean

Hogei kontzertu eta musika emanaldi baino gehiago izango dira Zubiondo plazako eta Zelaieta parkeko agertokietan: Doctor Deseo, Rat-Zinger, Erruki erromeria, Sorotanbele gogoan, Zornotzako Musika Banda, Supercremalleras,

Tremenda Jauria, Romea, Merina Gris, Dj Romea, La Tropadora, Kilimak, Xabi Aburruzaga, Julen Alonso eta Oinkari Dantza taldea, Camela, Gozategi, Zirkinik Bez!, Esenzian bai, Mariachi Mexico lindo sí señor, Jon Allende eta bertsolariak arituko dira Amorebieta-Etxanon. Era berean, ez dira faltako beste hainbat emanaldi eta kalejira, hala nola batukadak, txar-rangak, txistulariak, fanfarreak...

Dron ikuskizuna

EAEn egiten den lehenengoa izango da. "Hilaren 25eko su artifizialak ikuskizun horregaz ordezkatzearabaki da, jaiak inklusiboak izan daitezten. Badakigu su artifizialek ondorio kaltegarriak dituztela animalien, autismoa duten pertsonengan, edo zenbait arrazoren osasuntsu ez dauden pertsonengan. Jai Batzordeak apustua egin du karmenak eta santanatuak zornotzar guztiak eroso sentituko diren jaiak izateko. Horrela, arrazoi batengaitik edo bestearengaitik herritarrengan min objektiboren bat eragiten duten ekintzak ordezkatzeko joango gara apurka-apurka. Era berean, datu modura esan gura dut, guztira 100 dron erabiliko direla ikuskizun honetarako", adierazi dute.

Morgaetxebarriaren debuta

Jaietan, Aimar Morgaetxebarria pilotari zornotzarrek profesionaletan debutatuko du, etxean. Lasogaz batera, eskuz binaka, Urrutikoetxearen eta Elizegiren aurka jokatu du Amorebieta IV pilotalekuan, uztailaren 16an, 18:00etan.

ekin
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es



**ONDO
PASA
JAİETAN!**

Igurco Orue

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK



**Igurco Jose
Maria Azkuna**

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK

Jaia erdigunera ekarrita, txosnak Zubiondo plazan eta Zelaieta parkean egongo dira aurten

Txosnagunea Landatxu kaletik Zubiondora lekualdatu dute, eta Zelaieta parkean ere ipiniko dituzte txosnak

TXOSNAK • IGOR GALARZA

Karmen eta Santanatzu jaiak bereziak izango dira aurten zornotzarrentzat. Pandemia baten ostekoak direlako eta herriko erdiguneak indar berezia hartuko duelako. Zornotzako jaietan hainbat gune sortzen da kultura aniztasunari eta adin guztietako herritarrei bidea emateko asmoz. Azken urteetan, txosnagunea Landatxu kalean egon da karmenetan, baina aurten lekuz aldatuko dute eta Zubiondo plazan ipiniko dute, Ibaizabal errekaaren alboan. Jon Ormaetxeak, Zornotzako gazteen txosnaguneko kideak, "onuragarria" dela adierazi du, hainbat urteren ondoren eskatutako leku aldaketa begi onez ikusita: "Orain arte jaia periferian egoten zen, edo erdigunetik urrun behintzat. Aldaketak erdira ekarriko du gure jardura".

Landatxu kaletik Zubiondo plazara ekartzeko bidea batera egin dutela adierazi dute bai Ormaetxeak bai Andoni Agirrebeitia alkateak ere. Agirrebeitiak martitzenean Karmen eta Santanatzu jaien aurkezpen prentsurrekoan adierazi zuenez, beste gune bat

ere egongo da txosnekin. Zelaieta parkea, hain zuzen ere. Gazte txosnagunearen asmoa "txosna guztiak Zubiondon lekua izatea" zela esan du Ormaetxeak, "baina ez zegoen lekurik txosna guztientzat". Txosnak erdigunean kokatzea "aldarrikapenei begira oso garrantzitsua" dela nabarmendu du txosnaguneko kideak.

Urtarril-otsail inguruan hasi ziren batzen txosnagunea osatzen duten eragileak, eta euren egitaraua "laster" iragarriko dutela adierazi du Ormaetxeak. Udalak dagoeneko kaleratu du egitaraua, eta Zubiondoko eta Zelaietako kontzertuen berri ere eman dute. Talde hauek arituko dira Zubiondon: Doctor Deseo, Rat-Zinger, Erruki erromeria, Sorotan Bele gogoan, Zornotzako Musika Banda, Supercremalleras, Tremenda Jauria, Gozategi, Romea, Merina Gris, DJ Romea, La Topadora, Kilimak, Xabi Aburruzaga, Julen Alonso eta Oinkari Dantza Taldea eta Camela.

Bestalde, Zelaietan Zirkinik Bez, En Esenzia, Txistularien kontzertua, Jamaica Show Orkestra, DJ Txurru, Mariachi Mexico lindo ¡Si



Gazte txosnagunea Zubiondo plazan egongo da kokatuta aurten.

señor! eta Egan izango dira. Ormaetxeak gaineratu du aste bitartean ere ekingo du gongo dela Zubiondon, eta "lan gehiago egin behar izan arren ere, lanera gustura" joango direla. "Pauso garrantzitsutzat" jo du Ormaetxeak, eta jaiak "gogoz" ekingo diela esan du.

Erasoen aurreko protokoloa

Prentsaurrekoan, Ainhoa Salte-rain Zornotzako Udaleko Berdint-sun zinegotziak adierazi zuen pro-tokolo bat prestatu dutela gertatu litezkeen erasoen aurrean. Udalak eta txosnetakoek horrela adostuta, txonagune bietan gertatu litezkeen

erasoen aurrean zelan erantzun-go den gogoratu du. Beldur Barik-guneak ere zabalduko dituzte, in-formazio edo salaketa puntu lege-z. Horiez gainera, 722 232 869 tele-fono zenbakia ere martxan egongo da, laguntza profesionalizatua eskaintzeko prest.




SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com



**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHA
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako



Amorebieta - Etxano



Tel.: 94 673 47 58

San Juan Kalea 1,
Amorebieta-Etxano



**HOTEL
RESTAURANTE
HARRISON
ETXEA**

San Pedro, 12
48340, Amorebieta -Etxano
648 028 619



**IZAR
CUTTING TOOLS**

Ondo pasa Jaietan!



Zezilia Galartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758





**URTZA
TABERNA**

Luis Urrengoetxea Hiribidea, 11 Amorebieta-Etxano
Tel.: 94 673 15 57



'Dye-Dye' + 'Otempodiz'

DANTZA BERRIZ :: Uztailak 8

Dantza garaikidea, Kulturaz Blai egitarauaren eskutik

Ertza konpainiaren dantza ikuski-zun bi ikusteko aukera egongo da, gaur, Berrizen. Eskolako patioan egokituriko eszenatokian, 'Dye-Dye' eta 'Otempodiz' dantza piezekin gozatzeko aukera izango dute herri-tarrek, 19:00etan.

Mozambike eta Euskal Herria ar-tean, noranzko bitan uztartzen den sorkuntza artistikoa da 'Otempodiz' (Denborak dio), kultur-truke proiektu baten emaitza. Asier Zabaletak sortu eta zuzenduriko koreografia

da, eta lanbide irtenbide bat eta na-zioarteko dantza zirkuituetan mur-gildu ahal izateko lanabesak eskaini nahi dizkie Fenias Nhumaio eta Deissane Machava Maputoko dantza-riei. 'Dye-Dye' piezan, bestalde, Idoia Rodríguez González de Langarica eta Rafael Arenas dantzariak euren kolore paletak partekatuko dituzte, euren hautuak, euren bizitza; biak ortzadar berri batean urtu arte. 2004an sortu zuen Ertza konpainia Asier Zabaletak.

Uztailaren 8an

ABADIÑO **sankristobalak**
Donien Atxa jasotzea,
19:00etan, Mendiola auzoan.
Berakatz zopa, 20:30ean.
Niko Etxart eta Hapa Hapa,
22:30ean.

DURANGO **poemak**
‘Begiak zerumugan’ (Dana
Moya eta Miren Agur Meabe),
poema eta musika emanaldia,
20:00etan, bibliotekan.

ELORRIO **musika**
‘#mauriziakezdauinorhil’ (Ines
Osinaga, Olatz Salvador eta
Lorea Argarate), 22:30ean,
plazan.

ZALDIBAR **jaiak**
Familientzako mendi irteera,
08:30ean eta 09:30ean,
udaletxeko plaza-tik.
Aizkolariak eta iparraldeko
jokoak, 12:30ean, udaletxeko
plazan.
Apar-festa, 17:00etan.
ElektroHATXE aranga,
19:00etan, txosnagunean.
Keike + KOP, 23:00etan
txosnagunean.
DJ Josemari, 23:00etan, Euskal
Herria etorbidean.
Kulero, galtzontzilo eta
tanga martxa, 03:00etan,
txosnagunean.

Uztailaren 9an

ABADIÑO **sankristolabalak**
Meza, 11:30ean, Mendiolan.
Herri Kirolak: Zelaitarrak,
13:00ean.
Auto klasikoen erakusketa,
13:30ean.

Herri bazkaria (bakoitzak bere
maleta), 14:00etan. Ostein,
bertsolariak: Onintza Enbeita
eta Unai Iturriaga.
Tortilla txapelketa, 19:00etan.
Erromeria: Luhartz, 22:30ean.

ELORRIO **musika**
‘Kantu bat gara’ (Jon Maia),
22:30ean, plazan.

ELORRIO **bisita gidatua**
‘Basilikaren barrenak’,
11:00etan. Izena eman behar
da turismoa@elorrio.eus
helbidera idatzita edo 688 776
270 telefono zenbakira deituta.

ZALDIBAR **jaiak**
Arku-tiroa ume eta
nagusientzat, 10:00etatik
12:30era, Olazarko galerian.
Zaldibarko Korralaren
75. urteurrena: Araiako
bandaren kalejira, 11:00etan.
Kontzertua, 13:00ean, Zaldua
plazan.
Zunba saio herrikoia,
11:00ean, udaletxeko plazan.
Tortilla txapelketa, 12:00etan,
eskolako aterpean.

Zaldibarko Arku Taldekoen
erakustaldia, 13:00etan,
Olazarko galerian.
Herri bazkaria, 14:30ean,
txosnagunean.
3X3 saskibaloi txapelketa,
16:00etan, kiroldegian.
Olinpiadak, 17:00etan,
txosnagunean.
‘Akabo!!!’ (Barsanti),
18:00etan, Zaldua plazan.
Matraka elektrotxaranga,
19:00etan, txosnagunetik.
Afari-merienda, 19:00etan,
Olea kalean.
Novisi kalejira, 20:00etan,
Olea kaletik.

Erromeria: Altxaporru,
23:30ean, txosnagunean.
Gorka Perez Dj, Warm Up eta
Lande Luque Dj, 03:30ean.

Uztailaren 10ean

ABADIÑO **sankristolabalak**
Abadiñoko Talde Batuak
dantza taldea, 12:00etan,
Mendiolan.
Gazta, ogia eta ardoa,
12:30ean.
Bolo eta ugasio txapelketa
herrikoia, 13:00etan.
Laja II eta Lutxurdio, 19:00etan.
Parrillada eta errifen zozketa,
20:00etan.

DURANGO **antzerkia**
‘Les Tapas’ (Cia Carnage),
20:00etan, Aurora Abasolo
parkean.

ELORRIO **pailazoak**
‘Kuikui’ (Pirritx, Porrotx
eta Marimotots), 19:00etan,
plazan.

ELORRIO **bisita gidatua**
‘Los pilares de la basilica’,
10:30ean. Izena eman behar
da turismoa@elorrio.eus
helbidera idatzita edo 688 776
270 telefono zenbakira deituta.

ZALDIBAR **jaiak**
UDABERRIKOPA, Bizkaiko
txirrindulari eskolen arteko
proba, 09:30ean, Autonomia
kalean.
Jolas parkea, eskolako parkean
(11:00-13:00/16:00-19:00).

ANBOTOk o agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Meza, 11:00etan, San Martinen.
Euskal dantzak, 12:00etan,
Zaldua plazan.
Nerea Ibarzabal, Beñat
Gaztelumendi, Peru
Abarrategi eta Jone Uria
bertsolariak, 18:00etan,
Zaldua plazan. Gai jartzaile:
Ainhua Urien.
Su artifizialak 23:00etan.

Uztailaren 13an

BERRIZ **ikastaroa**
Zirku ikastaroa (Animagic),
17:00etan, eskolako patioan.

IURRETA **solasaldia**
Solasaldi musikatua. Joseba
Sarrionandiaren ‘Munduari
bira eman zion ontzia’
liburuaren aurkezpena,
20:00etan, Abadetxean.

Uztailaren 14an

DURANGO **berbaldia**
‘Otsailak 24. Nola heldu
gara hona?’ berbaldia
(Euskal Herria-Donbass
komitea), 18:30ean, Liburunea
liburudendan.

ELORRIO **musika**
Gau giro: Selektah 9mm,
19:00etan.

Uztailaren 15ean

BERRIZ **antzerkia**
‘Akabo!!!’ (Basarti), 19:00etan,
Olakueta plazan.

DURANGO **musika**
Insömnia, 20:00etan,
Platerueneko terrazan.

ELORRIO **musika**
Tcheke, 20:00etan, Ganondo
parkean.

Zinema

..

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Thor: Love and Thunder**
barikua **8**: 19:30 /21:00
zapateria **9**: 17:00 /19:45 / 21:00
domeka **10**: 17:00/19:45
astelehena **11**: 18:30/20:15
martitzena **12**: 18:30/20:15
eguaztana **13**: 19:00

• **Mis queridísimos hijos**
barikua **8**: 19:00
zapateria **9**: 18:45
domeka **10**: 18:45
astelehena **11**: 18:00
martitzena **12**: 18:00
eguaztana **13**: 19:30

• **Minions: El origen de Gru**
barikua **8**: 19:00
zapateria **9**: 16:45 /18:45
domeka **10**: 16:45 /18:45
astelehena **11**: 18:00
martitzena **12**: 18:00
eguaztana **13**: 19:30

..

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Jurassic World: Dominion**
barikua **8**: 20:00
zapateria **9**: 20:00
domeka **10**: 20:00
astelehena **11**: 20:15

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 16ra arte

UDA KO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durungaldeko 2021eko
argazkia
IRABAZLEA

Durangaldetik kanpoko
2021eko argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


Informetika & Telekomunikazioak


DURANGO


Garai
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

“Poesiak jolaserako aukera gehiago ematen du eta erosoago nago bertan”

'Mendekua ordainetan' liburua kaleratu du berriki Jon Ander Urkiaga idazle zornotzarrak; lehenengo eleberria du



Jon Ander Urkiaga Egidazu

Idazlea

ZORNOTZA | 1987

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Jon Ander Urkiaga zornotzarrak institutu bateko giroa islatu du bere lehenengo eleberrian. *Atea itxi aurretik* (2017) eta *Bizia min* (2021) poesia liburuak kaleratu eta gero, narratiba jorratu du bere azken lanean. *Mendekua ordainetan* gazteentzako nobela kaleratu du, Alai argitaletxeagaz. Itxialdi garaian hasi zen idazten, “entrenamendu” lez. Gazteen arteko hartu-emanak lantzen ditu bertan, besteak beste.

Lehenengo eleberria duzu. Zergatik aldaketa?

Hezurmuina pandemiak eragindako itxialditik dator. Orain artean, olerkiak idazten ibili izan

naiz batez ere. Etxean igarotzeko hainbeste ordu edukita, proba modura hasi nintzen, bestelako asmorik barik, entrenamendu lez. Handik denbora batera, iaz edo, argitaletxeoengana jo nuen eta aldaketatxo batzuk egin eta gero, proiektuak aurrera egin zuen.

Asko kostatu zaizu erregistroa aldatzear?

Egia esateko, askoz ere gusturago nabil poemekin. Gustura aritu naiz, baina narratibagaz hariari jarraitu behar diozu denbora guztian, eta horri bueltak ematen joan behar duzu; poesia jolaserako askoz ere aukera gehiago ematen du. Narratiban hari bati jarraitu behar zaio, koherentzia

bat mantendu behar da, eta dena lotu. Oraingoz behintzat, askoz ere erosoago sentitzen naiz poesiaaz.

Irakaslea zara. Horrek izan du eraginik?

Ez dakit. Argi nuen gazteentzat zeozer egin gura nuela. Beharbada, beste era bateko zeozer egin gura nuelako, eta errazagoa edo egingarriagoa izango zelakoan, baina beharbada nire alorra ere badelako. Modu naturalean joan da hori irteten.

Zelan dago egituratuta liburua?

Liburua hiru bloketan banatuta dago. Atal laburtxoak ditu; horrela, irakurketa errazagoa eta erosoagoa izango zela uste nuen.

Liburuak badu ezer autobiografikotik?

Ez, ez dago horrelako ezer. Narrazio bat idazteko gogoia nuen, eta hasieratik nuen ideia hori, baina ez dago leziorik emateko gogorik edo bizipenik.

Gazteentzako liburua da. Gazteek badute zaletasuna irakurtzeko?

Oso galdera gaxa iruditzen zait hori, eta ez dakit zilegitasunik ere badudan erantzuteko. Gazteak literaturatik urrun daudela esan ohi da; agian bai, baina, eta helduak? Gertu gaude? Galdera berdina egin daitezke guztientzat. Gaur egungo gizartea prest dago ahalegin bat eskatzen duen jardun bat garatzeko? Liburu bat irakurtzea

ala pantaila bati begiratzea, zer da errazagoa? Gazte batzuk oso irakurzaileak dira, eta beste asko ez. Eta hizkuntzaren aldagaia ere kontuan hartu behar da, ze, irakurtzen dutenen artean, zenbatek irakurtzen dute euskaraz? Eta non? Ez delako berdina Markinan, Sestaon edo Lizarran bizi izatea. Aurrekoan ere galdera bera egin zidaten, eta erantzuna edukiko banu, gazteak literaturara zelan hurbildu jakingo banu, aberastu ez dakit, baina hobeto biziko nintzen (barrez). Ni liburu fresko eta arin bat egiten ahalegindu naiz, ez besterik.

Irabazten ditudan kartel lehiaketetako jai guztietara joan beharko banu, urte osoa mozkortuta pasatuko nuke

Zelako harrera izan du liburuak?

Ekainaren hasiera aldera aurkeztu genuen liburu eta ez da sasoirik onena ikasleei liburu aurkezteko. Zabaltzekotan, datorren urteari begira izango litzateke. Dena dela, udarako liburu aproposa izan daitekeela iruditzen zait. Laburtxo da, eta bizia.

Baduzu asmorik aurkezpenik egiteko?

Ez dut asmorik, egia esateko. Aurreko liburuak aukera gehiago ematen zuen horretarako, baina honek ez. Ea datorren ikasturtean zabaltzeko aukerarik badagoen. Egia esateko, literaturan eskaintza piloa dago gaur egun, eta ez da erraza nabarmentzea. Askotan, irakasleok ere horren arduradun gara, izan ere, orain hamar edo hogeitaz funtzionatu zuten liburuekin lan egiten dugu. Liburu onak dira, jakina, baina behin eta berriro erabiltzen dira, eta liburu berriek ez dute aukerarik lekua egiteko.


Baduzu beste proiekturik esku artean?

Momentu honetan, ia irakurtzeko ere ez daukat astirik. Zer esanik ez idazteko! (barrez). Badut ipuintxo bat hortik idatzita, baina ez daukat ezer seniorik esku artean.



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!



Lorea Argarate, Olatz Salvador eta Ines Osinaga.

#MauriziaEzDauInorkHil lanak ekingo dio Musikaireren 2. asteburuari

Folklorearen berrirakurketa hau barikuan, 22:30ean, egongo da ikusgai, elizpean

MUSIKAIRE • A. M.

Musikaire kultur jaialdiaren aur-tengo egitaraua uztailearen 2an hasi zen. Pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren, ohiko formatuan bueltatu da aurten. Asteburu honetako ekitaldi sorta #mauriziaezdauinorkhil ikuski-zunagaz hasiko da. Lorea Argarate, Olatz Salvador eta Ines Osinaga musikariek sorturiko lana da hau; Itziar Garaluce arduratu da bideo proiektzioen diseinuaz. Proiektu honek euskal iruditegi kulturaren eta folklorearen berrirakurketa bat proposatzen

du. “Sustraietan ditu ahalduntze kolektiboa, elkarki lekua egitea, agentzia aitortzea, gurea den orgia bat, gurea den akelarre bat, gure festa”, diote. Maurizia Aldeiturriagaren irudia eta jarrera abiapuntu hartuta, orduko istorioak, kopla zaharrak eta doinu tradizionalak argitara ateratzeko helburua du. “Teknologia zahar eta berriek bat egiten duten leku horretan sortua da #Maurizia-kEzDauInorkHil, plazandreei gorazarre egiteko”, gaineratu dute. Emanaldia elizpean izango da, 22:30ean.

Bigarren asteburua

Asteburua borobiltzeko, Elorrion beste ikuskizun bigaz gozatu ahalko da. Zapatuan, Jon Maiak *Kantu bat gara* ikuskizuna egingo du. 30 urte dira Maiak bere lehenengo abestiak idatzi zituela; urteotan idatzi dituen kanta guztiak zerrendatu ditu *Kantu bat gara* libururako, eta horietariko sorta bat moldatu du kontzertuetarako; 22:30ean hasiko da, elizpean. Bestalde, Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek *Kuikui* ikuskizuna egingo dute domekan, plazan. 19:00etan hasiko da.

Miren Agur Meaberen eta Dana Moyaren emanaldia Durangon

Poesia musikatu ikuskizunak Miren Agur Meaberen *Begiak zerumugan* liburua du oinarritzat

UDA GIRO • A. M.

Begiak zerumugan ikuskizunak izen bereko poesia liburua du abiapuntu. Poesia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da, eta Dana Moyak eta Miren Agur Meabek bat egin dute bertan. Moyaren eta Meaberen lanak barne bidaia bat proposatzen du, eta “norberaren iparrari eta izarrari kasu egiteaz, bizipoza babesteaz eta martxan jarraitzeaz” mintzo dira. Barikuan izango da emanaldia, 20:00etan, Benita Uribarrena parkean. Bizenta Mogel udal bibliotekak antolatu du ekitaldia, Uda Gi-

ro programazioaren barruan. Euria eginez gero, San Agustin kulturgunean egingo dute ekitaldia. Bestalde, Carnage antzerki konpainia frantziarrak *Les Tapas* ikuskizuna aurkeztuko du, domekan, Aurora Abasolo parkean; 20:00etan hasiko da. Familia osoarentzako proposamena da *Les Tapas*. Carnage 1989an sortu zen eta ordutik 150 funtzio baino gehiago egin dituzte; besteak beste, Marokon, Belgikan eta Suitzan. Euria eginez gero Landako Gunean izango da.



Dana Moya eta Miren Agur Meabe.

Gai librean

Ospatzen ez direnak

Aste Santua, inauteriak, Eguberria, Gabon zahar eta Urte berri eguna, urtegunak, urteurrenak, Halloween, gau beltza edo hilen eguna, langileen, emakumeen, umearen egunak, konstituzioaren eguna, amaren eta aitaren egunak, hispanitate edo konkista eguna, eta santuak. Herriko jai gehienak santuen izenpean ospatzen ditugu. Egun horiek egun seinalatuak dira, letra larriz idazten direnak, janzkera, erritmoa eta umorea aldatzen dizkigutenak. Eta ez horiek bakarrik; aurreko egunak itxaronaldi egunak dira batzuetan, zain, urduri edo ilusionatuta egoteak. Ostekoak, ondorioz, oroitzekoak dira, aje egunak, izan gorputzekoak, bihotzekoak edo burukoak. Horretarako agian hirukoizten ditugu egun inportanteak, urteko egutegian gehiago okupatu



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Egun horiek egun seinalatuak dira, letra larriz idazten direnak, janzkera, erritmoa eta umorea aldatzen dizkigutenak

dezaten. Izen propioa eta gorri gehiago ager daitezten. Zalanza bi ditut, baina, nik horren inguruan: zer ospatzen den ospatzen ez ditugun egunetan, eta zer ospatuko genukeen ospatzen ditugunak ospatuko ez bagenitu. Egun guztiek bereiztasun edo bereizgarritasun bat izan behar al dute? Horren beharrik sentitzen al dugu? Zer gertatzen da astelehen arrunt batean, nola egiten diot aurre telebistan edo agendan anuntziatu ez den egun bati? Bai, kezkatzen nau egun arruntetan bizi ezin izateak, eta gehiago udan, gehiago jaialdi bezperetan. Eta aldi berean galdetzen diot neure buruari nori edo noren

izenean ospatuko genituzkeen jaiak kristautasunetik haratago. Nori abestuko eta dantzatuko geniokeen, norentzat egingo genukeen topa, santuak ez balira; San Pedro, San Fausto, San Juan, Santa Maña, San Roke, San Fermin eta abarrak, arrak, ez balira. Nor laudatzen du gaur egungo gizarteak? Nor gorai-patu? Nor gurtu? Beharbada janari ekologikoaren eguna izango genuke, edo poligamiarena, edo gimnasioen eguna akaso. Beharbada interseksionalitatearen eguna ospatuko genuke, edo dieta zorrotzena, edo bidaiatzearen eguna, festibalen egun internazionala, hipotekarena agian, amatasun eta aitatasun alternatiboen eguna, edo mugikorren eguna, edo sare sozialena. Ez dakit, santuak hilkor bihurtuko bagenitu, nori egingo geniokeen otoitz, nor edo zer bihurtuko genukeen hilez-kor edo betiereko.

“Logo moderno bat egin gura nuen eta tatuajeen estetika bat ematen ahalegindu naiz”

Iker Villanueva Blancok (Zaldibar, 1997) Zaldua Kirol Elkarteko urteurreneko logoa diseinatzeko lehiaketa irabazi du



Arkaitz Padilla Zaldua Kirol Elkarteko ordezkaria eta Iker Villanueva.

ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO

Iker Villanuevak Arte Ederrak ikasi du eta bere bizitzan hiru bider aurkeztu da diseinu lana eskatzen duten lehiaketetara. Eurretari bi irabazi egin ditu aurten: Zaldibarko kartel eta Zaldua Kirol Elkarteko logo lehiaketak. 2019ko kartel lehiaketan bigarren geratu zen. Arrakasta duela ikusita, lehiaketa gehiagotara aurkeztea pentsatzen dabil.

Diseinuaren eta sormenaren mundua gustatzen zaizu?

Bai, Arte Ederrak ikasketak egin ditut. Horrez gainera, tatuajeak asko gustatzen zaizkit eta mundu horretan gehiago sartu gura dut. Tatuaje batzuk egin ditut eta orain hobby bat da, baina horretan lan egin gura nuke.

Itxaroten zenuen irabaztea?

Logo guztiekin erakusketa antolatu zuten astebururako, eta besteen lanak ikustera joan nintzen. Batzuk oso onak iruditu zitzaizkidan, baina nirea hiru edo lau onenen artean zegoela eta irabazteko aukera nuela pentsatu nuen.

Zaldia da logoko elementu nagusia.

Bai. Hasieran ez nekien zer egin, ez zelako kirol bakar baten ingurukoa. Zaldua Kirol Elkartea lau kirolek osatzen dute: futbolak, pilotak, saskibaloiak eta mendiak. Zalduako armarrietan beti agertu

izan da zaldia eta dena bateratzen duen elementua izan daiteekela pentsatu nuen. Diseinuari dago-kionez, logo moderno bat egin gura nuen eta tatuajeen estetika bat ematen ahalegindu naiz. AEBetako saskibaloia eta futbol amerikarreko taldeetako logoak hartu ditut erreferentzia modura. Haietan ere animaliak agertzen dira eta estetika modernoa dute. Koloreei dago-kionez, garbi nuen berde kolorekoa izan behar zela. Hainbat berde tonu

Irabazten ditudan kartel lehiaketetako jai guztietara joan beharko banu, urte osoa mozkortuta pasatuko nuke

ageri da logoan.

Horrelako lehiaketetara aurkeztu zaren lehenengo aldia da?

Ez. Aurten Zaldibarko kartel lehiaketa ere irabazi dut eta 2019koan bigarren geratu nintzen. Orain arte, Zaldibarko lehiaketetara baino ez naiz aurkeztu, baina, emaitzak ikusita, gehiagotara aurkeztea pentsatzen nabil.

Baduzu hartu-emanik Zalduagaz? Elkarteko kirolen batean ibilitakoa zara?

Bai, pilotan eta futboleko ibilitakoa naiz gazteagotan. Pilotan hamasei bat urtera arte ibili nintzen, eta futboleko pare bat urte gehiago, gazte mailako bigarren urtera arte. Zaldua Kirol Elkartea txikitatik ezagutzen dut. Gainera, Zaldibar herri txikia da eta herri txiki bateko elkarteak beti sentitzen dituzu zeure, gertukoak direlako.

Oier Luengok Bigarren Mailan jarraituko du, Oviedo taldeagaz

Oviedoren eskaintza onartu, eta erdiko atzelari zornotzarrak urte birako sinatu du eurekin

FUTBOLA • J.D.

Oier Luengo (Zornotza, 1997) Bigarren Mailan aritu da aurten, Amorebietagaz. Klub zornotzarrak Lehenengo RFEF-era jaitsi da aurten, baina Luengok Bigarren Mailan jarraituko du hurrengo denboraldian ere. Oviedo klubetik jaso duen eskaintza onartu eta urte birako kontratua sinatu du eurekin. Eguaztenean aurkeztu zuten Carlos Tartiere futbol zelaian, eta etapa berriaren aurreran ilusionatuta dagoela adierazi zuen.


Joan zen denboraldian, atzeko lerroko finkoetako bat izan zen Amorebietan. Horixe erakusten dute datuek: 32 partidutan 2.510 minutu jokatu zituen.



Oier Luengo Oviedoren kamisetagaz. REALOVIEDO

Elisabeth Luengo eta Pedro Heredia Euskadiko txapeldun arku-tiroan

Modalitaterik prestigiotsuenean irabazi dute, arku kurbatuan



Luengo eta Heredia Gasteizko podiumean.

ARKU-TIROA • J.D.

Joan zen astean, 32. Euskadiko arku-tiro txapelketak lehiatu zituzten, Gasteizen. Modalitaterik garrantzitsuenean, arku kurbatuan, Durangoko Arkulariak taldeko Elisabeth Luengo eta Pedro

Heredia izan ziren txapeldunak. Modalitate honetan klub bereko arkulari bik emakumeen eta gizonen txapelketa irabazten duten lehen aldia da. Zaldibarko Arku Taldeko Lidia Cañete durangarra azpitzapeldun izan zen.

Oliveira eta Sanchez dominekin bueltatu dira Espainiako kickboxing txapelketatik

Borrokalari biak Euskadiko selekzioagaz aritu dira Kordoban jokatu den lehiaketan



Ezkerretik hasita: Ander Sanchez, Dani Calvo, Mikel Lopez, Celia Oliveria eta Aitor Romero, Kordoban.

KICKBOXINGA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, Espainiako Kickboxing Txapelketa lehiatu zuten Kordoban (Andaluzia), eta eskualdeko hainbat borrokalari-rik parte hartu zuen Euskadiko selekzioagaz. Eurretari-ko bi dominekin bueltatu ziren. Celia Oliveira elorriarrak brontzezko domina irabazi zuen senior mailako kick light modalitatean, eta Ander Sanchez berriztarrak zilarrezkoa jantzi zuen kadete mailako light contact-ean. Biek hainbat borrokaldi irabazi zuten dominak eskuratu ahal izateko.

IndarXsport eta Laureano Fight Team taldeko borrokalari bi horiekin batera, Dani Calvo eta Mikel Lopez durangarrak eta Aitor Romero garaitarra ere aritu ziren lehiari. Lopez finalerdietara heldu zen eta dominen atarian geratu zen. Romero garaitarrak oso lan ona egin zuen, baina merezitako saririk barik bueltatu zen.

Esperientzia irabazi

Mailarik maila estatuko borrokalari-rik onenak batu zituen Kordobako hitzorduak. Aurka-

rien maila ikusita, eskualdeko borrokalari-rik egindako lanaren balorazio positiboa egin du IndarXSport taldeko Dani Nuñezek. "Egun luzeak dira, goizetik iluntzera artekoak, baina oso esperientzia politak ere badira. Kontuan hartu behar da estatu osoko onenak batzen direla eta maila handia egoten dela. Gainera, Euskadiko selekzioagaz joan dira eta horrek jende berria ezagutzeko aukera ematen die. Hori guztia kontuan hartuta, gure ordezkari-rik lan bikaina egin dute", adierazi du.

Cafés Baquek 50 urte bete ditu Tabirakoko babesle modura

Durangoko saskibaloia klubak bere esker ona adierazi zion kafe enpresari San Agustin kultur guneko ekitaldian

SASKIBALOIA • J.D.

Tabirakok eta Cafés Baquek 50 urte daramatzate elkarrekin, eta saskibaloia klubak hainbeste urtean emandako laguntza eskertu gura izan dio kafe enpresari. San Agustineko ekitaldian, elkarrekin emandako urteei errepasoa eman zieten eta Cafés Baqué enpresari-ko María Baqué omendu zuten. Ekitaldiak hainbat agintari batu zuen, hala nola Iñigo Urkullu lehendakaria, Bingen

Mende erdiko ibilbidea errepasatu eta kafe enpresari-ko María Baqué omendu zuten

Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Mireia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentea eta Ima Garrastatxu Durangoko alkatea. Pablo Laso saskibaloia entrenatzailea ere bertaratu zen.



Pablo Laso, María Baqué, Hilario Perez eta Ima Garrastatxu ekitaldian.

Jokaldia

Uda

Gerizagarria, eguzkitakoa eta etzan-aulkia hartuta, atseden hartze- ra joango zen honezkero bat baino gehiago. Denboraldiko azken zutabea izango dut honako hau, baina oraindik urrun samar geratzen zaizkit opor egunak. Tourra, Donostiako Klasikoa, Getxoko Sari Nagusia, Burgosko Vuelta zain ditut ortzimugan. Munduko lasterketarik handiena jokoan da eta Danimarkan ikusitako irudiek harrituta utzi naute. Errepide bazterrak jendez mukuru izan dira, etxeak dotore atonduta eta belardietan jarritako apaingarriak zoragarriak. Aspaldian ikusitako jende uholde handiena izan dela iruditzen zait; 2014an Ingalaterrako Yorkshire konderrian jazotakoa gogorarazi dit. Kirol arloari dago-



Alfons Arrio
Monasterio
Kirol kazetaria

Danimarkan ikusitako irudiek harrituta utzi naute. Errepide bazterrak jendez mukuru izan dira, etxeak dotore atonduta

kionez, azken urteetan bereganatu nauen Roglicez irabaztea nahiko nuke, kirolari handia izateaz gain, beti kiroltasunez jokatu duelako. Jakitun naiz bere herrikide Pogacar historia egiteko bidean dela eta gaur-gaurkoz, buruz-buruko lehiari aurkaririk ez duela. Bere oldarkortasuna gogoko dut, ezagutu nuenean bere umiltasunak harritu ninduen, baita bere naturaltasunak ere. Baina zer esango dizuet, eski-jauzilari ohiak konkistatu egin nau azken urteetan. Hozkailu bat izatetik, pertsona umoretsu, irri-

fartsu eta sentimenduak azalerazten dituen pertsona izatera igaro da. Bere xalotasunak erakarri nau, jasotako kolpe latzen ostean erakutsitako indar psikiko eta fisikoak txundituta utzi naute. Nik uste, zale batek baino gehiagok desio berbera izango duela. Ikusiko dugu nor igoko den Pariseko podiumeko koskarik gorenera, maillot hori preziatua soinean duela. Anartean, goza dezagun bideaz, belau- naldi paregabea iritsi baita pelotoira. Batzuek bertatik bertara ikusteko aukera izango dute. Nik neuk Pirinioetan biziko dut onenen arteko lehia; lanak eta zaletasunak bat egingo dute. Esaera zaharrak dioten moduan, "gustuko bidean, aldaparik ez". Gozatu udaz eta abestu, "...Marianaon, jendea alai...Marianaon, haurrak putzuetan blai..."



Pirinioetako bidea

Uztailaren 2an, Durangaldeko herritarrek Auritz, Orreaga eta Baztan aldeko tontorrek argitu zituzten Pirinioetako Bidean ekimenagaz bat eginez. Gure Esku eta Kataluniako ANC eragileek antolatu dute Pirinioetako Bidea. Euskaldunek eta katalanek 300 mendi tontor argiztatu dituzte autodeterminazio eskubidearen alde, Higer lurmuturretik Creusera.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

ABADIÑO



4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala eta garajea. Parkin probatua. Txokoa. 300 m2-ko lorategiarekin.

355.000€ C.E.E=F

MATIENA



Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Argitsua. Igogailua. Ganbara.

120.000€ C.E.E=G

DURANGO



Eguzkitsua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

90.000€ C.E.E=G

ABADIÑO



DUPLEXA. Eguzkitsua. 2 solairutan banatuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Trastelekua. Garajea.

230.000 € C.E.E=E

DURANGO



10 urteko antzinatasuna. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan.

145.000 € C.E.E= F

MENDIZABAL



117 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak terrazarekin. Ganbara eta garaje itxia.

292.000 € C.E.E= F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Zubiaurre kalea. Pisu zoragarria. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia.

DURANGO: Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m2-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO




120 m²

3 logela

GASTEIZ BIDEA: Egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialde-mendebaldea). Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Egoera onean.

178.000€ C.E.E:F

DURANGO



75 m²

3 logela

ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guzietatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.

187.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO



85 m²

3 logela

ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegi onak.

249.000 € C.E.E: Bidean

IURRETA



70 m²

3 logela

BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Argitsua. ITE-a 2018. urtean pasatutakoa.

159.000 € C.E.E:E negoziagarria

MATIENA



58 m²

3 logela

TRAÑAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia (berriztatua), 3 logela eta komuna (berriztatua) eta despentsa. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Leku onean kokatua. Apartakalea. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatutakoa. Bizitzera sartzeko moduan.

124.000 € C.E.E:E

MUNTSARATZ



70,4 m²

2 logela

ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 10,82 m²-ko trastelekua eta 19,32 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.

189.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **125.000 € / E.E.Z=G**

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela, eta komuna. Balkoia. Ganbara eta igogailua. **160.000 € / E.E.Z=G**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **175.000 € / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzenko baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ZALDIBAR: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **228.000 € / E.E.Z=F**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 8 · 09:00-09:00	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 11 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
ZAPATUA, 9 · 09:00-09:00	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 12 · 09:00-09:00
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 13 09:00-09:00
DE DIEGO INTXAURRONDO 22 - DURANGO	BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 14 · 09:00-09:00
IRIGOEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
09:00-22:00	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 10 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO INTXAURRONDO 22 - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENAK 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Inhar!** Zortzi urte ala infinito? Zu bai zu mutiko jatorra, pilo-piloa maite zaittugu. Musu potolo bat etxeko danon partez.

Zorionak, **Iturri!** Heldu da azken urtiotan ospatu ez doguzen urtegun danak alkarraz ospatzeko momentue. Mosu handi bat danon partez. Ai! Eta ongi etorri etxera.

Zorionak, **Anetxu!** Jarraitu zure ahots gozo horregaz ingurukuei adarra jotzen. Mosu handi bat!

Gure etxeko printzesak 9 urte egin ditu uztailaren 7an. Zorionak, **Iraide!** Jarraitu orain arte bezain alai eta dibertigarri. Etxeko guztien partez mosu handi bat.

Zorionak, **Lu!** Zure 28. urtegunen ondo baino hobeto ospatzie espero dogu. Ziur gauz jana eta edana ez diela faltako! Egun ederra ein, politte! Pilo bat maite zaittugu. Zure kuadrillako tiabuenak.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 28° / 13° ☀️	ASTELEHENA 🌧️ 31° / 15° ☀️	EGUAZTENA 🌧️ 34° / 18° ☀️
DOMEKA 🌧️ 29° / 14° ☀️	MARTITZENA 🌧️ 34° / 16° ☀️	EGUENA 🌧️ 36° / 19° ☀️

Udako pottsak

**UDA OSORAKO LIBURUAK
ERAMAN, ADIN GUZTIETARAKO
DAUZKAGU!**

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTeka

“Abagunek gure artisau-lanen erakusleiho izan gura du”

Eneko Unzaluk eta Idoia Gabantxok Abagune zabaldu dute Durangon, euren artisau-lanak erakutsi eta saltzeko. 17:00etatik 20:00etara dago zabalik Anbrosio Meabe kalean



Eneko Unzalu Gaztelurrutia
MAÑARIA | 1970

Idoia Gabantxo Rekalde
BERMEO | 1984
Abagune

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Eneko Unzalu eta Idoia Gabantxo artisauak dira, artisautza dute bizi-bide, eta artisau-lanen atzean dagoen ofizio hori aldarrikatzen dute. Artisautza ordutegirik bako ofizioa dela diote, amaierarik ez duena, eta gogorra zentzu askotan. Instituzioen babes falta ere nabarmendu dute.

Zerk eraman zaituzte beste pauso bat eman eta Abagune zabaltzera?

Idoia Gabantxo: Gure lana ezin erakutsi, ezin saldu egon gara, COVID-19aren eraginez. Ez da azokarik antolatu eta sarrera ekonomikorik barik geratu gara. Bada, jendeari etortzeko aukera emango dion gune bat sortzea erabaki dugu.

Eneko Unzalu: Dena dela, Abagune

ez da denda bat, ez behintzat orokorrean ulertzen dugun lez. Gure artisau-lanen erakusleihoa da. Dena guk egindakoa da, eta bertan gustukorik edo ondo datorkizunik topatzen ez baduzu, zure premietara egokituriko bitxia edo arropa sortuko dugu.

Abagune izena ipini diozue.

I.G.: Bai, abagunek aukera esan gura du. Artisautzatik bizi gara, gure ofizioa dugu, eta, bat-batean, sostengu ekonomikorik barik geratu gara. Abagunek aukera bat izan gura du.

E.U.: Lehengaitik hasita, hemen egindako bitxi edo jantziak erosteko aukera dute bezeroek, prezio duinean, esplotazio eta kutsadurarik barik. Denontzako aukera bat da, guretzat, bezeroentzat eta artisau-lanentzat.

Jantziak eta belarritakoak hilero aldatu gura ditugu eta hori ez da jasangarria, ez ekologikoki ez ekonomikoki

ENEKO UNZALU

Urteak daramatzazue artisautzan. Eskuz egindako lanari balio handiagoa ematen zaiola uste duzue?

I.G.: Ez, gutxiago baloratzen da. Artisau tailer askoren atzean ez dago ofiziorik, saltzen dutenari buruzko ezagutzarik ere ez dute. Neurri handi batean, denak balio du. Diseinu eta moda ikasketak

ditut eta oihalen sektorean lan egin dut beti, orain hamar urte nire arropa marka sortu nuen arte. Arropa jasangarria egin gura izan dut beti, etika batez, eta emakumea esplotatu barik. Sektorean ez da baloratzen ez ofizioa, ez produktua, ezta atzean dagoena ere, eta ez nuen horren parte izan gura. Garai batean, jostundegiak zeuden, neurri egindako arropak. Jantziak beste era batera baloratzen ziren. Orain, hiru euroan ditugu kamisetak; prezio horretan, oihalik ere ez daukat.

E.U.: 20 urte daramatzat zilarra lantzen, eta, ibilbide bat egin ondoren,

Arropa jasangarria egin gura izan dut beti, etika batez, eta emakumea esplotatu barik

IDOIA GABANTXO

baditut bezero batzuk. Baina, orokorrean, gizarteak ez du artisautza baloratzen. Baliteke artisauok ere lana ondo egin ez izana sektore modura. Ingurumena kutsatuz eta lau txakur txiki ordaindu dioten ume batek Indian egindako eraztun bat 20 euroan erosi genezake, baina hori ez da prezio erreala. Jantziak eta belarritakoak hilero aldatu gura ditugu, eta hori ez da jasangarria, ez ekologikoki ez ekonomikoki.

Utzi egingo duzue azoken zirkuitua?

I.G.: Ez, baina ikusiko dugu zelan berreskuratzen den hori guzti hori. Krisi baten aurrean gaudela diote eta orain ere igartzen da diru gutxiago dagoela artisautzarako.

E.U.: Artisautzatik bakarrik bizitzea gatxa da, eta gogorra azokarik azoka ibiltzea. Ez ditugu utziko, baina Abagune sustatu gura dugu.

Baduzue enkargu berezirik gogoan?

E.U.: Denak dira bereziak, bezeroentzat berezia den neurrian.

I.G.: Bezeroaren ilusio bat, haren nahia islatu behar dugu. Alde horretatik, bereziak eta politak dira denak. Emaizta ikusita, erreakzioa ikustea ere berezia da.

E. U.: Bai, barrua mugitzen du, gura duten hori islatzea askotan gatxa ere bada eta.

enekounzalu.com/gabrek.com

Lau-hortza

Mertxe Mugika
Balanzategi
AEK



Kalea eta euskara

Soziolinguistika Klusterrak kale-ratu berri ditu 2021eko hizkuntzen kale erabileraren datuak, eta askotariko balorazioak etorri dira datu horien aurkezpen ondotik. Lerroburu nagusia izan da azken bost urteotan ez dela apenas gorabeherarik izan euskararen kale erabileran orokorrean. Nik, aitortu behar dut, datu eskasagoak espero nituen. Izan ere, iruditzen zait ni mugitzen naizen kaleetan euskara gero eta gutxiago entzuten dela. Hortaz, argi geratu da irudipenetatik harago, ikerketa behar dela; eta, errealtatean oinarrituta, neurriak hartu behar dira euskararen erabileran jauzi kualitatiboa emateko.

Halaber, poztekoak dira Durangaldeko datuak, non erabilerak %16,5eko hazkundea izan duen azken 11 urteetan. Hala ere, uste dut ezin garela konformatu emaitza hauekin. Edozein momentuan joera aldaketa gerta daiteke. Mundu globalizatu batean bizi gara, eta ikaragarria da hizkuntza handiek duten indarra.

Horren aurrean indarra egiteko, badugu oraindik euskararen erabilerak busti behar dituen eremu estrategiko asko: hiriburuak, goi-kultura zentroak, lan-mundua, finantza eta negozio arloa, esaterako. Gune horietan ere euskara entzutea giltzarria da. Gune horietara hurbilduko dira egun haur eta gazte direnak. Eutsiko diote euskarari? Haur eta gazte horiek badute gaitasun nahikorik euskaraz erraz eta eroso aritzeko?

Galdera horiei eta beste batzuei erantzun beharko diegu guztion artean. Testuingurua ondo ulertzea eta aurrera zelan egin ondo asmatzea dugu erronka, eta hori guztia benetako elkarlanean eta lankidetzan eginez gero, seguru nago gero eta euskara gehiago entzungo dudala mugitzen naizen kaleetan!

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com